ttipi ttapa

490

2009ko martxoaren 19a • XXIX. urtea
www.ttipi.net

Herritarren kezkei buruz Iratxerekin 03

Mikel Bezunartea Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteko teknikariak inguruko herritarren kezka nagusiez hitz egin digu: telekomunikazioa da kexa gehien eragiten duena.

Txus Unsion Berako korrikalariarekin 50

Saharako maratoitik bueltan hitz egin dugu Txus Unsion Berako korrikalariarekin. 53 urterekin sasoian dago eta etorkizunera begira ahal den arte lasterka segitu nahi du.

04 Etxeak zaharberritzeko 444.600 euro bideratu ditu urtebetean Nasursak

INTERESATUEK EGUNERO JASO DEZAKETE ZERBITZUA DONEZTEBEN



ORDOKI
altzariak

ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA

DESKONTUAK
DESKONTUAK
DESKONTUAK

%20
%30
%50

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAk
ZURE LAGUNTZA
BEHAR DU

Eginzazu TTIPI-TTAPAren alde
Eska ezazu TTIPI-TTAPAren proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

Proiektu zenbakia: **15.996**

Zure laguntza eskertzeko, **motxila eder hau izanen duzu opari.**

geure bezeroek aukeratutako proiektua can

DATUAK...

• Mikel Bezunartea Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteko teknikariak urteak daramatza eskualdean lanean: 15 urte Baztan eta Leitzan eta bizpahiru Bortzirietan eta Bertizaranan.

• Bortzirietara hilabeteko lehen eta hirugarren asteko ortziraletan etortzen da; Baztanera bigarren eta laugarren asteko ortzegunetan; Leitzara lehen eta hirugarren asteko asteazkenetan eta Bertizaranara bi hilabetean behin. Ordua aitzinetik hartu behar da: Bortziriak, Baztan eta Leitzan 012ra deituta eta Bertizaranan udaletxera deituta.

ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Mikel BEZUNARTEA *Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea*

«Ulertu gabe ez deus sinatzeko errepikatzen diet kontsumitzaileei»

ttipi-ttapa

Zerk kezkatzen ditu batez ere hemengo herritarrak?

Kontsumitzailearen mundua arrunt zabala da baina erreklamazio kopururik altuena telekomunikazioen ingurukoa da, Internet eta telefono zerbitzuei buruzkoa. Horien ondotik, paretsu, aseguruak eta etxebizitzaren alorrak datoz. Hirugarren mailan, banku eta aurrezki kutxen gaineko erreklamazioak daude, eta etxez etxeko zerbitzuak gero.

Zein dira alor horietako problemak?

Telefonoekin, batez ere alta eta baja eskatzeko kontuek sortzen dituzte kexarik gehien, edota *905* eta *806* zenbakien tarifek. Interneten kasuan, abidura jakin bat kontratatu eta murritzagoa emateak ere erreklamazioak eragiten ditu, edo zerbitzua mozteak. Etxebizitzaren inguruan salerosketek sortutako erreklamazioak izaten dira batez ere, eta aseguruei dagokienez, gisa guzietakoak, erosten ditugun gauza aunitzek aseguruak baitituzte: kotxeak, etxeak, bidai-aseguruak...

Argindarraren fakturan aldaketak egin dira eta Iberdrola faktura bi hilabetetik behin bidali ordez, hilabetero bidaltzen hasi da…

«Batetik, argindarraren legean izan den aldaketa, eta bertzetik, urtarrilean prezioak garestitu zirela eta negua hotza izan dela kontuan hartuz, erreklamazio aunitz izan ditugu»

Duela gutti arte zerbitzu horiek guztiak publikoak ziren, baina pribatizatu egin ziren eta geroztik, erreklamazio kopurua aunitz igo dela nabaritu dugu. Argindarraren kasuan, orain arteko erreklamazio gehienak enpresak kobratzen zuenarekin edo egiten zuen irakurketarekin jendea ez zegoelako gustura izaten ziren. Orain legea aldatu da eta faktura hilabetero bidaliko dute, baina irakurketa bi hilabetean behin eginen dute. Kobratzerakoan estimazio bat eginen dute. Aldaketa hori batetik, eta bertzetik, urtarrilean prezioak garestitu zirela eta negua hotza izan dela kontuan hartuz, erreklamazio aunitz izan ditugu. Horrez gain, kontagailuak ongi funtzionatzen ote duen ala ez ere zalantzan jartzen hasi da jendea.

Gasa ere kezka iturria al da?

Bai, batez ere Bortzirietan. Gas instalazioaren azterketek eta mantenu zerbitzuek eragiten dituzte erreklamazio gehien. Bortzirietan, mantenu zerbitzua eskasa da, eta kontratatutako zerbitzuek ez diete arazoei erantzun.

Zein da kontsumitzaileei gehien errepikatzen diezun aholkua?

Ulertu gabe ez deus sinatzeko. Saltzailea saltzailea da eta bere helburua argia da: saltzea. Kontsumitzaileok gure ardura ere badugu. Gure aitatxi-amatxiengandik gureganako tartean, kontsumoari dagokionez trantsizio bat egon da. Eurek gutti kontsumitzen zuten, eta guk, berriz, aunitz. Trantsizio garai horretan, legeekin kontsumitzaileak babestu dira, baina azken urteotan kontsumitzaileok ere gure ardura badugula erraten ari dira. Informatu egin behar dugu, ulertu eta sinatzeak zer dakarren jakin, publizitateak nola jokatzen duen ohartu... Edozein zalantza izanez gero, konfidantzako bati galdetu behar zaio, ez saltzaileari. Aurrekontu, faktura eta kontratuek ere berebiziko garrantzia dute eta ongi gorde behar dira.

Elkarrizketa osoa: *www.ttipi.net*en

ARGAZKIA: ONDIKOL

Otsailaren 24an inauguratu zuten Baztan-Bidasoako Nasursaren bulego berria Donezteben. Ekitaldian, bertzeak bertze, Jose Carlos Esparza Nafarroako Gobernuko Etxebizitza eta Lurralde Antolaketa kontseilariak eta Idoia Madariaga Nasursako kudeatzaileak parte hartu zuten. Bortziriak, Malerreka, Bertizarana eta Sunbillako udal ordezkariak ere han izan ziren.

Urtebete igaro da Nasursa hirigintzari buruzko laguntza ematen hasi zenetik

Baztan-Bidasoako herritarrei zerbitzu publikoa ematen die Donezteben

Etxeak eraberritzeko dirulaguntzak kudeatu eta Udalei hirigintzari buruzko aholkularitza teknikoa eman. Bi eginbehar horiexek ditu Baztan-Bidasoako Nasursak. Nafarroako Gobernuko Etxebizitza eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren mende dagoen enpresa publikoa da Nasursa eta Nafarroan 1999an sortu bazen ere, joan den urtean ailegatu zen eskualdera. Urtebetean Donezteben Juansenean egon da bulegoa, baina orain bulego berria du, Donezteben Merkatarien Karrikan, Udaletxearen parean. Baztan-Bidasoako 21 herritako bizilagunentzat ari dira lanean, eta horrez gain, 12 udalekin hitzarmena dute herriko hirigintza kontuak kudeatzeko. Poliki-poliki zabaltzen ari dira eta azken urte honetan jaso duten jendearen erantzuna ere ona izan da. Hala, urtebetean etxeen zaharberritzei buruzko 168 ahozko kontsulta atenditu dituzte eta 108 etxebizitzari zegozkion 56 espediente tramitatu dituzte. Nafarroako Gobernuak 444.646,11 euroko dirulaguntza eman du etxe horiek zaharberritzeko eta Udalek eskatuta 90 hirigintza espedieinte tramitatu dira.

ttipi-ttapa

Donezteboko Merkatarien Karrikako bulegoan topatu dugu Nasursa entitate publikoko lantaldea, bakoitza bere zereginean. Bortz langile dira: Eduardo Vicente arkitektu eta bulegoko arduraduna, Xabier Urtiaga arkitektua, Roberto Perez aparejadorea, eta Edurne Huizi eta Alvaro Pinillos administratzaileak. Arkitektuek hirigintzari buruzko aholkularitza zerbitzua eskaintzen diete udalei, eta aparejadoreak eta administratzaileek herritarrek etxebizitzak zaharberritzeko jaso ditzaketen dirulaguntzak kudeatzen dituzte. Baztan-Bidasoako herrietan bi zerbitzu horiek eskaintzen ditu Nasursak oraingoz, baina etorkizunera begira, baliteke bertze zeregin batzuekin ere hastea. Hala adierazi digu Eduardo Vicente arduradunak.

Eskualdeko 12 udalek dagoeneko Nasursarekin eramaten dituzte hirigin-

Eduardo VICENTE *Baztan-Bidasoako Nasursako arduraduna*

«Etxea berritzeko subentzioa jaso nahi bada, obra hasi aurretik etorri behar da guregana»

Urtea daramazue Donezteben, zer moduzko balantzea egiten duzue?
Erantzun ona jaso dugu, primerakoa. Horrek hirigintza kontuetan behar hori bazegoela adierazi nahi du. Bi zerbitzu eskaintzen ditugu eta bai udalekin eta bai herritarrekin gustura ari gara lanean. Hirigintza arloan 12 udalekin lan egiten dugu eta emaitza polita da.

Jendeak ba al daki zertarako zaudeten?
Oraindik batzuk despistatu xamar dabiltza, baina jabetzen ari dira. Jendearentzako zerbitzu probetxugarria dela uste dut eta gero eta jende gehiagok jotzen du guregana. Bailaran teknikarien talde sendo bat edukitzea garrantzitsua da.

1999an sortu zen Nasursa. Zein izan da bere ibilbidea?
Etxebizitzaren alorrean zegoen gabeziari aurre egiteko sortu zen. Hasiera hartan helburuak ez ziren hain zehatzak, baina duela urte batzuk zeregin hauek hartu zituen. Hirigintzan, batez ere Nafarroako Pirinioetan eta eskualde honetan ez zegoen deus ere, eta toki horietan ireki da Nasursa, etxeen eraberritzeak kudeatzeko eta hirigintza arloan udalei laguntzeko. Oraingoz Zangotzan, Agoitzen eta Donezteben daude bulegoak.

Zein da jendearen kezkarik nagusiena?
Etxebizitzak eraberritzeko kontuetan, ohiko kezka, teilatua berritzea izaten da. Inguruko etxe haundietan eraberritzeko lanak askotan haundiak dira eta horri aurre egitea ez da erraza. Dekretuan zehazten diren baldintzak betetzeko gauzak ongi aztertu behar dira. Hemen egiten diren paper guztiak obra hasi baino lehen egin behar dira eta hori jakitea inportantea da. Hilabete edo hilabete eta erdi behar dugu paper guztiak egiteko, Gobernuaren baietza lortu eta dirulaguntza jasotzeko. Jendeak denborarekin etorri behar du galdetzera, eta ez behin obrak hasiak direla. Etxe berriak egin behar direnean, berriz, etxea egin daitekeen ala ez. Horixe da hemengo buruhausterik haundiena.

tzako aferak: Bera, Lesaka, Igantzi, Bertizarana, Doneztebe, Elgorriaga, Donamaria, Oitz, Urrotz, Beintza-Labaien, Zugarramurdi eta Urdazubik. *«Beharra, beraz, argia zen»*, dio Vicentek. *«Inguru hau nahiko isolatua dago eta askotan teknikariak lortzeko arazoak izan dituzte udaletxeetan. Kanpoko arkitektu batekin lan egitera behartuak egon dira»*.

Bortziriak, Baztan, Malerreka, Bertizarana, Urdazubi eta Zugarramurdiko herritarrei etxebizitzak zaharberritzeko laguntza ematen dien Nasursaren zerbitzuak ere estimu haundia jaso du. *«Edozeinek bere etxea berritu nahi badu, honat etor daiteke»*, dio Doneztebeko arduradunak. *«Dekretu baten bidez banatzen dira laguntzak eta hori kudeatzen da hemen. Herritarrengandik hurbilago gaude»*.

Kezka nagusia: teilatua berritzea

«Teilatuak nola berritu». Hori omen da etxebizitza eraberritzeko kontuetan jendearen buruhausterik nagusiena. Etxebizitza berria egin nahi dutenen kezkaz ere galdetu diogu Vicenteri: *«etxea egin daitekeen ala ez jakitea»*, erantzun digu Eduardok. Izan ere, *«inguruan ohikoa da eremu ez urbanizagarrian etxebizitzak eraikitzea. Legearen arabera, ordea, etxeek isolatuak izan behar dute, eta Gobernuak dio etxeak egin eta egin, azkenean auzoak sortzen ari direla. Etxebizitza bakoitzak 1.500 metro koadro behar ditu inguruan –herri bakoitzeko araudiaren arabera, kopurua altuagoa izan daiteke–, baina horrela, auzo ttikiak ari dira sortzen eta hori ez du onartzen»*. Hori da eskualdean dagoen arazo haundiena.

Eta Udalak zerk arduratzen ote ditu? Kasu bakoitza diferentea da. *«Zenbait tokitan eraikitzeko gogoa dago eta Udalaren kezka hori nola antolatu da. Bertze zenbait tokitan, aldiz, udaletan ez da eraiki nahi baina inguruak hustutzen ari dira eta ez dakite nola egin horri aurre»*. Udalekin lanean hasi diren honetan, hainbaten hirigintza plana *«zaharkitua»* aurkitu dutela ere aitortu digu Vicentek, eta planak eguneratzen hasi omen dira batzuk.

Ordutegia

Astelehenetik ortziralera, 9:00etatik 14:00etara Doneztebeko bulegoan egoten da Nasursako lantaldea, eta astearte eta ortzegunetan, 15:30etik 17:30era ere bai. Horrez gain, Beran, hilabeteko lehen eta hirugarren asteko asteazkenetan Herriko Etxean izaten dira (8:00-12:00) eta denborarekin baliteke Baztan eta Lesakara ere joatea. Ordua aitzinetik har daiteke, baina ez da nahitaezkoa.

Edozein zalantza dela ere, lasai deitzeko adierazi du Vicentek: *«ez da deus ere kostatzen dei bat egitea, eta zein laguntza dauden galdetzea»*. Interesatuentzat telefonoa: 948 456103.

LAGUNTZAK

Etxea zaharberritu nahi duenarentzako hainbat dirulaguntza deialdi egiten dira. Batzuk ohikoak dira eta bertze batzuk momentu jakinekoak:

· **Ohiko dirulaguntzak:** urte osoan eska daitezkeenak dira eta errenta izaten da kontuan hartu beharreko baldintzetako bat. Berritu nahi den etxea bertan bizitzeko izan behar da edo errentan emateko. Laguntza obrak hasi aitzinetik eskatzea ezinbertzekoa da.

· **Aparteko dirulaguntzak:** Gobernuak kopuru eta epe jakin bat paratzen du eta hortik aitzinera ez dago dirulaguntza lortzeko aukerarik. Duela gutti, adibidez, energia kontsumoa murrizteko obrak subentzionatzeko deialdia egin zuen Nafarroako Gobernuak. Momentu honetan, ordea, ez dago aparteko dirulaguntzarik. Dena den, aipatzekoa da,Etxebizitzaren alorrari bultzada emateko Gobernuak 2011ko abenduaren 31 bitarte indarrean mantenduko duen deialdia. Etxebizitza bakoitzeko gehienez 3.000 euroko dirulaguntza emanen du, beti ere, etxebizitzak 15 urte baino gehiago baldin baditu eta laguntzaren eskaera egiten duena hor bizi bada. Etxe barruko obrak baino ez ditu subentzionatuko deialdi honek eta laguntza jasotzeko, guttienez 4.000 euroko aurrekontua duen proiektua aurkeztu behar da. Bertzalde, bikoiztu eginen ditu etxeak berritzeko laguntzak.

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
Tirada: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Gurutze Pikabea.
Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea…
Imprimategia: Gertu.
Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea…

2009ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	36 €
Espainia	36 €
Ipar Euskal Herria	54 €
Europa	54 €
Amerika eta Australia	120 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	30 €

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

geure bezeroek aukeratutako proiektua can

2009/03/19 • *490.* zbk.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Leitzako Kultur Taldearen esker gutuna herritarrei

Leitzar jator hori:

Ikusiko zenuen noski EAk banatu duen aldizkaritxoa, eta zeinen tratera bitxi eta harrigarria ematen dion Leitzako Kultur Taldeari. Bada, jakizu Orantzaroaren festaz haien galdera jaso bezain laster erantzun geniela. Eta orduan adierazia berresten dugu. Honatx, jakinaren gainean egon zaitezen, EAri bidali genion eskutitza koma bat bera ere aldatu gabe:

«Leitzako Eusko Alkartasunari:

Orain berriro guri zuzendutako eskutitz bat jaso dugu zuen aldetik. Bertan galdera bat luzatzen diguzue; Olentzeroaren antolaketan zuek gonbidatuak ez izatearen arrazoia.

Lehenik eta behin, gure esker ona adierazi nahi dizuegu zuen interesagatik. Zinez garrantzitsua da herrian antolatzen diren gauzetan parte hartzea eta interesatzea zein kezkatzea.

Bigarrenik, harridura puntu bat ere azaldu nahi dizuegu. Izan ere, alderdi politikoei inoiz ez diegu zuzeneko gonbidapenik egin, gure ardurapeko lanetan aritzeko. Nahiz eta, jakina denez, nornahi beti ongi etorria izaten den lanean aritzeko eta laguntzeko. Gainera, dagoeneko 30 urteko ibilbidea badugu. Eta jarduerak urte osoan egiten ditugu: Kultur Astea, Antzerki zikloa, musika emanaldiak, hitzaldiak,…

Edozein moduz, argitze aldera, Orantzaroaren festa dela eta ez dela, gure irizpideak adierazi nahi dizkizuegu. Duela bi urte Olentzeroari buruz eztabaidatu genuen taldean, eta urtetik urtera bertako festa hori indarra galtzen ari zela ohartu ginen. Gero eta jende gutxiagok hartzen baitzuen parte. Eta zerbait egin behar zela erabaki ondoren, Aurrera elkartera jo genuen, gure kezka hura mahai gainean paratzeko. Haiek ere gure kezka berdinak zituztela eta, lanari ekin genion. Zenbait bilera egin, eta Olentzeroaren festa gorpuztuz joan zen.

Geroztik, urri aldera hasten dira bilerak festa hori antolatzeko, eta bertara gonbidatuak eragile hauek izaten dira:

· Alke Altzadi Leitzako Kultur Elkartea, ideiaren bultzatzailea izakio, hainbat material bildu duelako eta ardura bere gain hartua duelako.

· Aurrera Elkartea, historikoki antolatu izan dituelako Eguberrietako festak, eta herriko eragile garrantzitsu eta ezinbestekoa delako. Ekarpen haundiak egin ditu, gainera.

· Guraso Elkartea, eguerdiko Olentzeroa haiek antolatzen dute, eta, horrenbestez, koordinazio lan bat egin behar baita.

· Aurrerako Dantzari Taldea, haiei esker egiten delako, hein haundi batean, oraingo plazako festa, prestatzen duten saio ederrak lan haundia ekartzen die.

· Udala, plazako azpiegitura eskatzen baitzaio: plaza itxi, argi indarra eman, balkobeak utzi, plazako argiak itzali, etxola jarri, surako ontzia...) Material horiek eskatu eta koordinatzeko, kultur batzordeko lehendakari den Jon Arangoa joaten da behar diren bileretara.

Honetaraz gero, berriz ere eskerrak emanez, gure gonbidapenik zintzoena egin nahi dizuegu taldeak antolatzen duen urte osoko kultur programan parte hartu eta ekarpenak egiteko. Kultur taldearen ateak, bestela ezin izan gainera, zabal-zabalik dituzue, baita lanean aritzeko prest dagoen edozeinek ere. Gainera, izugarri eskertuko genuke lagun gehiago izatea lan nekeza horretarako. Mesede ikaragarria izanen litzateke guretzat!!!

Hala, aski duzue gure taldeko edozein kiderengana hurbiltzea eta galdetzea. Esate baterako: Juanmari Barriola, Fernando Oiartzun, Koro Makazaga, Julian Zabaleta…

Bukatzeko, espero dugu zuen kezkak eta zalantzak argituko zirela, eta jaso ezazue gure agurrik beroena.

Leitza, 2009ko otsailaren 4a.

ALKE».

Kontu horiek horrela, eta aurreratze aldera, ALKEko partaideok honakoa adierazi nahi dizugu, leitzar zintzo eta jator zaren horri, zinez eta benaz: LEITZAR GUZION LAGUNTZA BEHAR DUGU KULTUR TALDEAN. Hara! jende gutxi gara taldean, guziok borondatezkoak eta helburua argia dugu; kultura sustatze hutsa. Gainera, saltsa eta programa handitan sarturik gaude. Urte osoko programa aberatsa egin nahi baitugu, herrian berean kultur eskaintza oparoa izan dezagun. Besteak beste; kultur astea, emakumeen eguna, naturari buruzko jardunaldia, antzerki zikloa, musika emanaldiak, Webgunea… **Mesedez, kultur alorrean lanerako gogo eta asmorik baldin baduzu, zatoz ostiraletan arratsaldeko 8etan egiten dugun bileraren batera; edo bestela galdeiguzu zuzenean. Eta ekin lanari gurekin batera**, gure herriak kultura alorrean ere aberatsa izaten segi dezan.

Amaitu aurretik, egokiera hau baliatu nahi dugu gure esker ona adierazteko herritar guziei, berdin antolakuntzan laguntzen diguzuenei, berdin jardueretara hurbiltzen zaretenei. Eta, ez ditugu ahaztu nahi, zintzo eta leial, kultur asterako eta laguntza ematen duzuen lantoki, komertzio, jatetxe, talogileak... eta gainerako guziei.

Eskerrik asko eta sarri arte!!!

Altzadi Leitzako Kultur Elkartea (ALKE)

Etxalarko Bentetan N-121-An izandako istripuaz

Patxiku Irisarri, Etxalarko alkateak bere izenean eta bere taldea den Herri Taldekoen izenean zera adierazi nahi du:

• Lehenik eta behin bere familia eta lagunei gure elkartasuna adierazi nahi diegu.

• Lan istripuak arazo

• IRAKURLEAK MINTZO •

sozial bezala hartzen ditugu, izan ere gaur hil den langileak eta zauritu diren bertze hirurak bere eta beraien familiaren ogibidea ateratzerakoan izan dute istripu tamalgarri hau.

• Gertatutakoa lehen bailehen argitzea eskatzen dugu

• Bat eginen dugu antolatzen ahal diren mobilizazio eta ekintzetan.

Patxiku Irisarri
Etxalarko alkatea

N-121-Ako azken lan istripua

N-121-A errepideko obretan gertatu den azken lan istripuaren harira, zera adierazi nahi du LAB sindikatuak:

Hildako eta zauritutakoen etxekoei gure elkartasuna adierazi nahi diegu.

Istripuari buruz hitz egiterakoan Laura Alba Nafarroako Gobernuko Herrilan kontseilariaren hipokresia salatu nahi dugu.

Nola liteke Nafarroako Herrilan kontseilariak «Etxalarko istripuaren inguruan azalpenik ez duela» adierazi eta «zerbaitek huts egin» zuela erratera mugatzea?

LAB sindikatuarentzat gauza bat dago argi: lan istripu gehienak lan arriskuak prebenitzeko legea betetzen ez delako gertatzen dira. Istripu bakoitzak arrdura batzuk ekarri beharko lituzke. Kasu honetan azken arduraduna Nafarroako Gobernua da.

Gisa honetako herri lan bat Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamentuak egin beharko luke. Baina herri lan guztietan gertatzen den bezala, gastuak aurreztea da helburu nagusia, osasuna eta langileen bizitzaren gainetik.

Nafarroako Gobernua honegatik da arduraduna:

Obra honetan, lur mugimenduak egitekoa zen lehen enpresak lanak egiteko diru gehiago eskatu zion Nafarroako Gobernuari. Baina Gobernuak ez zion diru gehiago eman nahi izan eta obra gelditu egin zen, Gobernuak berak nahi zuen prezioan egiteko prest zegoen bertze enpresa bat aurkitu zuen arte. Atzerapen horregatik egunez eta gauez ari dira obran lanean.

Azpikontratazioa sustatzen du eta baimentzen duen lana antolatzeko sistema honekin ezbehar-tasa igotzen ari dela frogatua dago.

Gehiegizko lan erritmoa sustatzen du. Irudi politikoa dela-eta, obra ahalik eta azkarren bukatu nahi du, edozer gauzaren gainetik. Horrela, alderik ahulenaren, hau da, langileen lan baldintzak okerrera doaz.

Beraz:
Gobernuko Herrilan kontseilariaren dimisioa eskatzen dugu, bera delako azken lan istripu honen arduraduna, errepide honetako obretan urte honetan gertatu den bigarrena.

Herri lanetan gutti batzuen interes ekonomikoen gainetik guztien ona nagusitu dadin eskatzen diogu Nafarroako Gobernuari. Benetako beharren arabera egin daitezela obrak, eta Nafarroako Gobernuak zuzenean egin ditzala, horretarako behar dituen baliabideak lortuz. Bukatzeko, erran, gisa honetako obretan langileen segurtasunari lehentasuna ematea ezinbertzekoa dela.

LAB sindikatua

Zalain auzoaren gainean gezurrak eta manipulazioa

Ttipi-Ttaparen 489. alean, herriz-herriko atalean Berako berrietan agertzen denari xehetasunak jartzera goaz, gauzak argitzeko asmoz.

1- Titularreko esaldian bi gezur erraten dira. Bideak ez du industrialdearekiko bereizketarik suposatzen, bide horren gainean ibiliko direlako industrialdeko kamioiak maniobrak egiteko, eta zamak jaso eta jeisteko lanetan ere bidearen gainean aritzen ahalko dira.

Bidea norabide bakarrekoa izanen da auzotik ateratzeko eta oso meharra. Auzora sartzeko nabeen artean ibili beharko da derrigorrez.

Babesgunea eraikiko dela aipatzen da titularrean eta hori ere gezurra da. Bide horrek ez du babesgunea suposatzen, eta bestalde, hainbeste hurbiltzen dira nabeak, ia ez dela lekurik gelditzen bestelako babesgunerik eraikitzeko.

2- Berdegunea aipatzen da gero, eta honi buruz, promotoreak bere hasierako proiektuan ezartzen zuena baino ttikiagoa da, nahiz eta hura ttikia izaki, erran nahi da, ia-ia ez dela berdegunerik. Zein babesgune eraikitzen ahal da azalera minimo horretan?

3- Gero, Udalari gelditu zaion soluzio bakarra hau dela dioenean, ez gaude ados, eta uste dugu Udalak irizpide propioak ez dituela izan auzoa defendatzeko, eta bat egin du promotorearekin alineazio berriak jartzerako orduan, hartu berri duen erabakian.

4- 2007an Udalak eta promotoreak sinatu zuten hitzarmenarekin, Berako Hirigintza Plana aldatu nahi zuten, eta orain hartu berri duten erabaki honekin, hori lortu dute, eta Udala makurtu egin da promotoreak markatzen duen alineazioa onartu arte. Horregatik hurbiltzen dira nabeak hainbeste auzora. Eta dokumentuak baditugu hori frogatzeko.

Hitzarmenarekin jarraituz, ez dugu ulertzen zergatik sinatu zuen Udalak, promotoreari hainbeste eskubide ematen dion eta auzoarentzat hain kaltegarria zen hitzarmena.

Bestalde, gure ustez, eremuaren lurzorua sailkatzean, Udalak esparruaren %10 eskuratzeari uko egin dio. Eta herriak asko baino gehiago galdu du sailkatze honekin.

Bukatzeko Berako Hirigintzako Udal Planak eremu honetan eraikitzeko baimena duen zoruaren azalera asko haunditzen da hitzarmena sinatu eta gero. Gai honekin gauzak ez ditugu argi ikusten eta Auzitegiari zuzenduak eta helegiteak jarrita daude.

Mattin Irigoien
Jose Juan Lanz
Zalaingo
auzotarren izenean

Demokraziaren kalitateaz

Martxoaren 8ko ospakizunak zirela eta hogei leitzar inguru bildu ziren herriko plazan, hauen parean *nosotroslosdemokratas*-en aginduetara ongi jan, ongi uniformatu eta hobeki armatutako ia beste horren beste guardia zibil, batzuei dokumentazioa eskatuz eta hogeitik gorako multzorik ez zutela onartuko esanaz. Iaz Iruñean lurrean eserita zeuden emakume arriskutsu eta izu zabaltzaile haiei eman zieten neurriko tratua ikusita, benetako animoa da gure agintarien partetik aldarrikapen paketsuak egiteko.

Gure auzoko euskaldunek orain arte *nosotroslosdemokratas*en alderik leunenak emandako bizkarrekoak hartu behar izan dituzte, aurrerantzean label demokratiko guztiak gainditzen dituen konstituzionalista markakoak hartu beharko dituzte, kalitate neurririk zorrotzenak gainditutako ostia bero-beroak Nafarroako kalitate demokratikoaren parera igotzeko aukera ezin hobea.

Legez kanporatzeak onartu zituenean zakua botoz betetzearekin amets egin zuen PNVk ez zuen ongi neurtu espainiarren gosea. Kudeaketan ezin hobeak diren horiek ere akatsa garesti ordaindu beharko dute, hurbil, negozio handiak sumatzen baitira.

Josefe
Leitza

Zuzenketa

Ttipi-Ttaparen aitzineko alean, Leitzako kronikan, Inaxio Perurenak 295 kiloko harria jasota, 25 urterekin *«zama horretako harria jaso duen harri-jasotzailerik gaztena dela»* argitaratu zen. Baina Mieltxo Saralegik 24 urterekin 312 kilokoa jaso zuen, eta beraz, Perurena baino gazteagoa zela harri haundiagoa bizkarreratu zuen.

Erredakzioa

POSTA ZERBITZUA

Baserrietako posta zerbitzuan aldaketak egin nahi ditu Espainiak

Zenbait etxebizitzetako buzoiak auzo sarreretan elkartu nahi dira

ttipi-ttapa

Espainiako Gobernuak aldaketak egin nahi ditu posta zerbitzuaren banaketan. Oraindik aldaketa behin betikoa ez bada ere, dagoeneko zenbait Herriko Etxetara jo du Gobernuak postaren banaketa nola ezarri nahi duen adierazteko.

Ttipi-Ttapak hartzen duen eremu gehienean, baserrietarako posta astean bizpahiru egunetan banatzen da. Postaria ez da egunero-egunero joaten baserrietara, baina etxera bertara joaten da eskutitzak eramatera.

Espainiako Gobernuak, ordea, 2000. urtean orain arteko banaketa sisteman zenbait aldaketa egitea onartu zuen, posta entregatzeko hainbat mota arautu zituen: posta-bidalketak, kasillero edo kutxatilategien bidezko banaketa, etxeetara eramanez, eta posta-kutxatiletan edo bulegoetan banatuz. Horrez gain, eta aipatutako bideekiko salbuespen gisa, araudi horretan posta entregatzeko bertzelako xehetasun bat ere ageri da eta horrek *«inguru berezietan edo salbuespen kasuetan»* posta nola banatu behar den jasotzen du.

UTZITAKO ARGAZKIA

Gisa honetara, auzotar aunitzen posta bilduko lituzkeen buzoiak paratu nahi ditu Espainiako Gobernuak toki jakin batean, postariak etxez etxe ibili gabe.

Salbuespen kasuetarako hauxe dio araudiak: *«ohiko posta ez da etxez etxeko zerbitzuarekin banatuko, hainbat etxebizitzetako posta bilduko lukeen kasilleroak edo kutxatilategiak erabiliz baizik»*. Araudi horren arabera, posta ez litzateke baserrietara eramanen, inguruko zenbait etxebizitzetako posta puntu jakin batean utziko litzateke, hor egonen litzatekeen kasilleroan. Dena den, araudiak posta egunero banatzea aurreikusten du.

Hain zuzen, gure eskualdea salbuespen kasua dela iritzita egin nahi du aldaketa Espainiako Gobernuak eta, bertzeak bertze, Etxalar eta Berako Udalarekin harremanetan jarri da. Bi herri hauetako alkateak, ordea, erabaki horren kontra daude eta orain arteko zerbitzuarekin segitzea nahi dute: posta baserrietarainoeramatea. Patxiku Irisarri Etxalarko alkateak **Ttipi-Ttapa**ri adierazi dionez, *«herriak elkartu eta zerbait egiten hasi beharko dugu»*.

Ordenantzak dioenez, *«inguru berezian»* daudenak *«etxebizitza isolatuak edo sakabanatuak»* dira, hau da, *«zerbitzu publikoek erabili ohi duten bide publikoetatik 250 metro baino gehiagora daudenak»*.

Beraz, araudi horren arabera, gure eskualdeko edozein baserri *«etxebizitza isolatua edo sakabanatua»* izanen litzateke.

ALDAKETA BERTZE TOKIETAN

Espainiako bertze eremuetan ere hasia da Gobernua aldaketaren berri ematen. Hala nola, Luzaiden (Nafarroa).

BORTZIRIAK

Pediatraren ordezkapenak ezin bete

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak Bortzirietan dagoen pediatra bakarraren bajak eta oporraldiak ez ditu ordezko pediatra batekin betetzen. Horrela salatu du Eusko Alkartasunak. EAtik aipatu dutenez, Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakarako pediatra bakarra dago, *«dagokion bezalaxe, honek oporrak hartzen ditu edo bajan egon daiteke, baina orduan Gobernuak ez dauka ordezkorik eta bere lana familiako medikuak bete behar izaten du»*. EAren arabera, *«arazo historikoa da, baina azken aldian egoera larritu bertzerik ez da egin eta gero eta gehiago dira Bortzirietan pediatrarik gabe egoten diren egunak»*. Zerbitzu hori Nafarroako Gobernuak bermatu behar duela uste du EAk eta bajak kudeatzeko duen sistema *«onartezina»*dela eta *«soluzioa lehenbailehen eman behar diola»* deritzo. Nafarroako Gobernuak egoera moldatzen ez badu, *«Nafarroa Bai taldearen bitartez, ekimen parlamentarioak»* aitzinera aterako dituztela adierazi du Eusko Alkartasunak.

muuxubat!

EZKONTZA

gehigarria 2009

Kimetz Belardonda
Lorea Agirre Iribarren
Dietetika eta nutrizioa
Dieta pertsonalizatua
Naturista kontsulta
Masajea
Leitzako ermp. 3 behea • 31740 ZUBIETA
T: 948 481 473 • kimetzbelardonda@hotmail.com

Banity
Luis Mariano 16-18 • IRUN • Tfnoa: 943 63 11 44

JUAN J. PIKABEA
SENARGAIENTZAKO TRAJEA
ZURE NEURRIRA
10 egunez
DIESEL
Neurri haundiak
Galtzak eta bakeroak 70 arte
Atorrak 56 arte
Jertseak
Ametzia z/g · DONEZTEBE · 948 451 670

ANDREGAIEN SOINEKOAK

Ezkontza egunean, begirada guztien erdian

Ezkontza egunean andregaiaren soinekoak biltzen ditu begirada guztiak eta argazkilarien flashak. Horregatik andregaiak denbora ugari eskaintzen dio soinekoa aukeratzeko lanari. Ongi hartu beharreko erabakia izaten da.
Egia da gaur egungo eskaintza anitza eta estilo guztietakoa dela. Hala ere, urtero tendentzia bat nabarmentzen da bertze estilo eta ezaugarrien gainetik, eta andregaiek denboraldiko joera edo tendentziari arreta handia jartzen diote.
Aurtengoan inspirazio flamenkoa nagusi izanen da. Hala ere, bertze bi estilok ere presentzia handia izenen dute 2009 andregaien soinekoetan: alde batetik uhandreen silueta iradokitzen duten soinekoak (estuak belaunetaraino, gerria markatuz eta belaunetatik behera bolumen eta luzera handiko dandarrak dituztenak) eta beste aldetik, heleniar estilokoak (greziar garaiko tuniken itxura hartzen duten soinekoak).

Egun berezi horretan andregaiak eder eta eroso sentitu behar du, eta horixe da azken finean, axola duena

Garaiko tendentzia eta modak alde batera utzita, garrantzitsuena soinekoak andregaiaren pertsonalitatea eta estiloa agertzea da. Alegia, soinekoa eta andregaia bat etortzea.

Aurtengoan erabat desagertzen dira mahukak eta eskoteak nagusi dira forma guztietan, bereziki, uhalik gabeko eskoteak bihotz formarekin eta eskote asimetrikoak. Halter lepoak ere ikusiko dira, lepoaren atzealdean lotuta lepoa agerian utziz edota lepo guztia estaliz, bitxi baten moduan.

2009ko andregai soinekoetan protagonistak honakoak izanen dira: tolesdura eta bolanteak (soinekoei bolumena emanez, bolante tradizionalak, farfailezkoak edota asimetrikoak), loreak (oihal, forma eta neurri guztietan, bizkarreko eskotea itxiz edota xehetasun moduan), lazoak (bizkarreko eskotea itxiz edota xehetasun moduan, lazoak hartzen duen tamainaren arabera, soinekoaren protagonista bihurtu daiteke. Lazoa gerria inguratuz, dandarrean tamaina handian edota eskotea markatuz); gerrikoak (larruzkoak edo zetazkoak, zabalak edo estuak, belarriarekin edo lazo itxurarekin, edota kolorekoak. Gerria nabarmentzeko eta silueta markatzeko erabiltzen dira); aurtengo soinekoak bitxiak eta Swarovsky kristalez apainduak egonen dira, soinekoan zehar edota soilik soinekoaren atal bat nabarmenduz. Farfailezko boleroak zeremonia unean andregaiaren eskotea estaltzeko prenda erabilienak izanen dira.

M.L
ESTETIKA - ILEAPAINDEGI MISTOA
depilazio elektrikoa
ileapaindegia - solariuma
depilazioa - masajea
manikura - pedikura
ordua eskatu
Iturlandeta, 4 BERA T. 948 630 483

Amaia
estetika zentroa
• Andregaientzako aurpegi eta gorputz tratamendu berezitak (kabaina, urea...)
• Manikura frantsesa
• Makillajea
• Solariuma
• Depilazioa
• Osagarriak
Amestia z/g • DONEZTEBE • T.948 450 163

maria
ileapaindegia
Zure ezkontzarako ileko detaileak Maria ileapaindegian salgai. Sartu ikustera konpromisorik gabe
makillajea • orrazkerak
DONEZTEBE 948 450 922

SENARGAIEN JANTZIAK

Bulego-trajea nagusitzen da aurten, urte osorako egokia baita

Senargaien aurtengo jantzietan klasizismoa eta abangoardia nahasten dira, tradizioa eta modernotasuna elkartzeko asmoarekin. Beraz, 2009ko senargai jantziek oinarri klasikoa izan arren, gaur egungo modaren ikuspuntutik diseinatuak egonen dira.
Bulego-trajea nagusitzen da aurten, denboraldi guztietarako egokia baita. Oihalei dagokionez, satinatua nagusi da, marra eta distira jokoak sortuz.

Jakak beste urteetan baino luzexeagoak, 5 zentimetro, eta neurrira egokituak, estuagoak eramanen dira. Jaka gehienak bi botoi eramanen dituzte eta zirritu (irekidura) txiki bat edukiko dute.
Atorretan zuria gailentzen den kolorea da, nahiz eta beste tonuetako kolore argiak (bainila, berde argia,...) ikusiko diren. Txalekoetan, aurten aldaketa nabarmenak egonen dira. Aurreko urteetan trajearen kolore berdinekoak izaten ziren moduan, 2009an txalekoak gorbataren kolore berdinekoak edo antzekoak izanen dira.

Senargaien aurtengo jantziak tendentzia modernokoak eta gazteen modara egokituak egonen dira.

Senargai jantzien koloreei dagokionez, kolore ilunekoak nagusi izaten jarraituko dute, nahiz eta distira eta kolore ukitu gehiago edukiko dituzten. Gainera, txalekoak tonu pasteletan eramango dira, trajearekin kontrastea sortzeko.

Osagarriei dagokionez, urre koloreko mahuka-bikiak protagonistak izanen dira. Oinetakoetan zapata beltzak lokarriekin nagusituko dira.

ANDREGAIEN ORRAZKERAK

Motots altuak eta txirikordak, nagusiki

2009an, aurreko urteetan bezala, orrazkera bilduak dira gehien ikusiko direnak, forma eta estilo guztietan: motots altuak aurpegi guztia agerian utziz, motots nahasiak aurpegira erortzen diren ile-xerlo solteekin, garondoan bildutako orrazkera xumeak eta txirikordak. Gehienetan orrazkera hauek tiara, diadema, zinta, lore edota kapeluekin apainduak agertuko dira.

Dena den, motots altuak eta txirikordak izanen dira guztien gainetik nagusituko diren orrazkera bilduak. Motots altu sofistikatu zein sinpleak ikusiko ditugu eta txirikordak forma guztietan: txirikordez betetako mototsak, txirikorda luze kiribilduak edota txirikordak diadema moduan jarriz. Azken orrazkera hau izanen da 2009ko ikusiena.

Estiloei dagokionez, kutsu erromantikoa duten orrazkerak indar handia izanen dute. Estilo erromantikoa ile orrazkera guztietan ikusiko dugu, bildu gabeko orrazkeretan baita, ile leuna, ondulatu edota kizkurretan. Ukitu erromantiko hori, batez ere uhinduren bidez eta ilea loreekin apainduz lortzen da.

Ile osagarriei dagokionez, aipatutako loreez gain aurtengo tendentzia diademak izanen dira. Hauek orrazkerei dotoretasuna ematen diote eta diseinu desberdinetakoak izan daitezke: diadema sinpleak, arri bitxiz betetako tiara edo koroak, edota zinta formakoak. Aipatzekoa da errezelak aurreko urteetan baino gehiago ikusiko direla.

Hala ere tendentziak jarraitzea baino garrantzitsuago izaten da orrazkerak andregaiaren estilora egokitzea eta soinekoarekin bat etortzea, andregaiaren edertasuna eta feminitatea agerian jarriz.



Kutsu erromantikoa duten orrazkerak indar handia izanen dute. Estilo erromantikoa ile orrazkera guztietan ikusiko dugu, bildu gabeko orrazkeretan baita, ile leuna, ondulatu edota kizkurretan. Ukitu erromantiko hori, batez ere uhinduren bidez eta ilea loreekin apainduz lortzen da.

MAKILLAJEA

Freskoa, xumea, arina eta naturala

Andregaia inoiz baino ederrago eta dotoreago egoteko, makillajea freskoa, xumea, arina eta naturala izan behar da, andregaiaren aurpegiari argitasuna emanez eta xamurtasuna iradokiz. Laburbilduz, andregaiak natural eta distiratsu egon behar du.

Horretarako kolore eta makillaje gehiegikeria saihestu behar da. Kolore biziak, indartsuak eta ausartak ez erabiltzea gomendatzen da, hauek argitasuna kentzen bai dute eta ez dira batere dotoreak. Beraz, kolore neutroak erabiltzea gomendatzen da.

Fondoko makillajea arina eta naturala izan behar da, krema kolorekoa eta akabera mate edota satinatukoa.

Betazpiak estaltzeko makillajea inperfekzioak disimulatzeko eta azalari ukitu berezi bat emateko erabiliko da.

Makillaje-hautsak azalaren distirak eta fondoko makillajea finkatzeko erabiliko dira.

Honek aurpegiari belus-antzeko akabera emanen dio. Kontuan eduki behar da betazpiak estaltzeko makillajea eta makillaje-hautsak azalaren tonu berdinekoak edo antzekoak izan behar direla.

Begi-itzalei dagokionez, tonu leunak eta neutroak erabili behar dira. Marroi tonalitatekoak eta arrosa kolorekoak dira erabilienak. Begi-arkatz beltza edo marroiarekin, marra mehe bat eginez begia azpimarratzea gomendatzen da.

Betileak tindatzea eta permanentea egitea ezinezkoa baduzu, waterproof errimela erabiltzea gomendatzen da, negar eginez gero, aurpegia ez zikintzeko. Bekainak ere ongi azpimarratu behar dira.

Ezpainetan, kolore argiko ezpainetakoak erabili, distira ezpainetakoarekin argitasun ukitu bat emanez.

Azkenik, kontuan eduki behar da erabilitako makillajea iraupen luzekoa izan behar dela, egun guztian makillajeak perfektu iraun behar duelako

Azken finean lortu nahi da makillajea ia antzemanezina izatea, andregaiaren aurpegia garbi eta natural egoteko eta andregaiaren berezko edertasuna bere osotasunean antzemateko.

LOREAK

Loredendetan ezkongaiaren izaera erakusten duen xorta osatzen saiatzen dira, baita ezkontza-ingurua naturaltasunez eta kolorez betetzen.

Lore-xortak andregaiak ematen duen irudiarekin bat egin behar du eta normalean, jantziari egokitzen zaio. Modu berean, andregaiaren altuera eta ilearen edo azalaren kolorea garrantzitsuak dira nolako lore-xorta behar den aukeratzerakoan.

OTORDUA

Jatetxeen aholkuek aunitz laguntzen dute

Ezkontza ospakizuna pasatu ondotik, nerbioak alde batera utzi eta ezkonberriek egun berezi hau gonbidatuekin batera festa giroan ospatzeko unea iristen da, ezkontza oturuntza. Horretarako, ezkontza oturuntza osatzen duten alderdi guztiak perfektu egon behar dira: dekorazioa, mahaien kokapena, aperitiboa, menua... Eta hori lortzeko, ezinbertzekoa da jatetxerik egokiena bilatzea.

Jatetxerik egokiena bilatzea ez da lan erraza. Bilaketa lan honetan, gutxienez urte bat lehenago hasi behar da. Gainera, kontuan eduki behar da ezkontza denboraldia maiatzetik urrira izaten dela, beraz, ezkontza hilabete hauetan egin behar duten ezkongaiek denbora gehiagorekin hasi behar dira lekua bilatzen.

Jatetxea aukeratu ondotik, menua aukeratzeko unea iristen da. Jatetxe batzuk menu itxi desberdinak aukeran jartzen duten bitartean, beste jatetxe batzuk, beraien kartan dituzten plater guztiak eskaintzen dituzte. Ezkontzarako menua aukeratzeko orduan, jatetxeak eskaintzen duen aholkularitza kontuan hartu behar da, ezkongaiak plater aukera zabal horretan galtzen baitira.

Aperitiboak ere geroz eta garrantzi gehiago du eta gonbidatuek arras gustuko izaten dute. Ezkonberriei itxaron bitartean, gonbidatuak lasai eta festa giroan egoteko modu bat da. Gonbidatuak gustura egoteko, garrantzitsua da aperitiboa oparoa izatea eta edari aukera zabala eskaintzea. Gainera, aperitiboan plater sortzaileagoak eta originalagoak lantzeko erabiltzen dute jatetxeek.

Gaur egun, orkideak dira gehien erabiltzen eta eskatzen diren loreak, hainbat kolore izaten dutenez, konbinatzeko erraztasuna ematen baitute. Halere, larrosak, tulipanak, fresiak, kalak eta bertze hainbat lore ere erabiltzen dira.

onegin
Herbodietetica Ekodenda

EZKONTZETARAKO OROIGARRIAK
sabaiak, kanderiak, intsentsuak, bainu-gatzak, usain gozoko zakutxoak...
Jaime Urrutia, 26, behea • ELIZONDO • 948 581 932

bertzirudi

EZKON-GONBITAK
DOTOREAK, JOERA BERRIAK, UMORETSUAK, e.a.
DESPEDIDETARAKO
KAMISETAK · ARGAZKI MUNTAIAK
e.a.

Mailposta Buzoneos
Publizitate banaketa
Inprimategia
Diseinu grafikoa
Altzugorea Etxea . 31793 NARBARTE (Nafarroa)
www.mailpostabuzoneos.com
katalogoak • artelak
logotipoak • kartazalak
tarjetak • orri mutuak
pegatinak • foiletoak...
948 592 313
686 747 713
609 404 229

EZKONBERRIEN BIDAIAK

Urrutiko lekua edo toki exotiko bat aukeratzen dute ezkonberriek

Ezkontza-bidaietarako, urrutiko lekua edo toki exotiko bat aukeratzen da. Batzuk Karibeko lekuren bat nahiago dute, hondartzaz eta eguzkiaz gozatzeko eta bertze batzuk, historia duten lekuak nahiago dituzte eta Egipto, Turkia, Grezia edo Italiara jotzen dute. Bertze batzuk modernotasunaren aldeko apostua egiten dute eta hain erakargarria suertatzen den New York hautatzen dute. Kulturaren aldeko apostua egiten dutenek Europan barrena bidai klasikoa ere hartzen dute. Nekagarria ere suerta daiteke, baina arinagoa

Banaz bertze, ezkontza-bidaien prezioa 3.600 eurokoa izaten da, hamar bat egungo bidaiarentzat.

ere egiten ahal da, hondartzako egunen bat gehituz planari. Banaz bertze, ezkontz-bidaien prezioa 3.600 eurokoa izaten da, hamar bat eguneko bidaiarentzat.

Ezkonberriek atsedena nahiago izaten dute, ezkontzaren eguneko urduritasuna pasatzeko eta horregatik bidai exotikoak dira gehien eskatzen direnak: Riviera Maya eta Cancun dira aspalditik gehien eskatzen diren jomugak. Ametsetako hondartzetaz gain, leku hauek kalitateko hotel eskaintza izaten dute. Ezkon-bidaia originalagoa bilatzen dutenek Brasil, Argentina eta Australia gero eta gehiago aukeratzen dute.

Ezkonberriek izan dezaketen esperientzia berezienetako bat kruzero edo itsas bidaia egitea da, itsasoaren xarmaz eta zeru izartsuez inguratuta. Jomuga ezberdin aunitz aukeratzen ahal dira eta 4 eta 10 egun bitarteko bidaiak. Garaiaren arabera, eskaintza ederrak topatzen ahal dira, itsas bidaia prezio eskuragarrian egiteko moduan.
Gehien eskatzen diren jomugen artean Antartida, pinguino-koloniak hurbiletik ikusteko, Eskandinabia, Florida, Estanbul eta Malvinas irlak daude.

ARGAZKI ERREPORTAJEA

Argazki erreportajearekin batera bideo erreportajea egiteko aukera eskaintzen dute profesionalek

Ezkontza eguna ahaztezina da eta ezkonberriek bizitza osoan gogoratuko dute. Oroitzapen horiek denboran zehar irauteko argazki eta bideo erreportajea egitea gomendagarria izaten da. Ezkongaientzat horren garrantzitsua den egun berezi horren irudi ederrenak erretratatzeaz gain ospakizun osoan gertatzen diren xehetasun guztiak biltzeko modu ezin hobea da.

Zeremonian hasi eta dantzaldia bukatzen den arte, egunaren oroigarri izaten dira argazki eta bideo erreportajeak

Argazkiak aterako diren lekuaren hautaketa denborarekin egin behar da, ezkontza egunean argazkilaria lekuarekin familiarizatua egoteko eta argazkietan bikoteak aukeratutako leku polit horren alderdi ederrena isladatzeko. Argazki erreportajea zeremonia baino lehen edo zeremonia bukatzerakoan egitea, bikoteak dituen behar eta gustuen arabera aukeratzen da. Azken finean, argazkiek egun horretan bikoteak duen zoriontasun guztia erakutsi behar du, andregaiaren eta senargaiaren edertasuna nabarmenduz.

Argazki erreportajearekin batera bideo erreportajea egiteko aukera eskaintzen dute profesionalek. Modu honetan, ezkontza osoan, zeremonia hasten denetik dantzaldia bukatzen den arte, gertatzen diren momentu ahaztezin guztiak harrapatzea lortzen da.

Kontuan eduki behar da, argazki eta bideo erreportajeak egiten dituzten profesionalak ezkontza garaian lan ugari izaten dutela, beraz hauen zerbitzua kontratatzea erabakitzen duten bikoteak denborarekin bilatzen hasi beharko dira..

Izan berezia...

EZKONTZA GONBIDAPENAK

zuk nahi dituzun bezala pertsonalizatuak.

Kulturkari

» Andutzeta, 12 - 31760 Etxalar · Tel. 948 635 458 - Faxa 948 635 457 · kulturkari@ttipi.net «

MERCHE
MODA HOMBRE

Serapio Mugika,11 • 20302 IRUN • 943612626

· Giovani Valdi
· Sandro Sellini
· Caramelo Gala

BERA

Zalainen eginen den bideak auzoa eta industrialdea ez dituela bereiziko diote auzotarrek

Auzoa defendatu beharrean, promotorearen nahietara «makurtu» izana leporatu diote Udalari

ttipi-ttapa

Zalain auzotik ateratzeko industrialdetik pasako den hiru metro zabaleko bidea ez da nahikoa auzotarrentzat. Salatu dutenez, *«bide horren gainean industrialdeko kamioiak ibiliko dira»* eta nabeak zenbait etxetatik hurbil gelditu ko direlako.

Ttipi-Ttaparen aitzineko alean aipatutako *«berdeguneari»* buruz, *«promotoreak bere hasierako proiektuan ezarritakoa baino ttikiagoa»* dela salatu dute Zalaingoek, *«ia-ia ez da berdegunerik»*.

2007an Udalak eta promotoreak sinatutako hitzarmena ere kritikatu dute auzotarrek: *«Udala makurtu egin da promotoreak markatzen duen alineazioa onartu arte»*. Ez dute ulertzen Udalak zergatik sinatu zuen akordioa, *«promotoreari hainbeste eskubide eman eta auzoarentzat hain kaltegarria dena»*. Gisa berean, Udalak esparruaren %10 eskuratzeari *«uko egitea»* ere salatu dute eta gauzak argi ikusten ez dituztelako, epaitegietara jo dute.

Sanestebanak antolatzeko deia

Oraindik urruti daudela dirudien arren, bestak prestatzen hasteko tenorea da. Aurtengo bestak ere arrakastatsuak eta parte-hartzaileak izan daitezen, bestetako lehenbiziko bileran parte hartzeko gonbitea luzatu du Kultur Batzordeak, ideia eta ekarpen guztiak ongi etorriak izanen direlako. Bilera martxoaren 24an eginen da, 19:00etan Herriko Etxeko Pleno Aretoan.

Turismo Bulegoa zabalik

Aste Santuan berriro zabalduko ditu ateak Turismo Bulegoak. 10:00etatik 14:00etara eta, 16:00etatik 19:00etara egonen da irekia.Igande arratsaldez eta astelehenetan egun osoz itxita egonen da. Aste Santua pasata, ekainaren erdialdera arte ez da berriz zabalduko bulegoa.

ARGAZKIA: ROSA ERRANDONEA

Zuhaitz berriak landatu ondotik, hamaiketakoa

Ehiza eta Arrantza Elkarteak, Udalaren laguntzaz antolatutako Zuhaitzaren Eguna egin zen martxoaren 1ean. Tiro eremu inguruan, bertako hainbat zuhaitz landare sartu zituzten neska-mutikoek, gurasoekin. Bezperan, Ehiza eta Arrantza Elkarteko kideek zuloak egin zituzten eta haurrek, bakoitzak bere zuhaitza landatu zuen. Ondotik, hamaiketako ederra izan zuten. 1979an berreskuratu zuen ohitura hau Herriko Etxeak, Guraso Elkarte eta Gure Txokoa Elkartearen laguntzaz. Azken urteetan, Ehiza eta Arrantza Elkartearen eskutik egin dute.

ARGAZKIA: GOIKO

Stock feria arrakastatsua

laz baino parte-hartze ttikiagoa izan zen, baina halere, jende dezente hurbildu zen martxoaren 1ean Larun-Haizpe elkarteak antolatutako salgai-hondarren feriara. Guztira 1.592 lagun sartu ziren azokara. Oro har, salmentak iazkoak baino baxuagoak izan arren, krisi garaian gaudela kontuan hartuz, antolatzaileak gustura gelditu dira erantzunarekin.

UTZITAKO ARGAZKIA

Gure Txokoaren mus txapelketak eman du aurtengoa

Gure Txokoa Elkarteak antolatuta, IV. Mus Txapelketa egin da berriki. 42 bikotek eman dute izena, eta guztien artean Lesakako Ibai Bereau eta Miguel Angel Indakoetxea izan dira txapeldunak; bigarren Arantzako Patxi Iturria eta *Potune*; hirugarren Berako Jon Altzuguren eta Adrian Gajate eta laugarren Berako Txitxo eta Txitxo.

LESAKA

Igerilekuko mailegu eskaeran izan duen jarrera zehaztu nahi izan du PNVk

Nafarroako Kutxarekin sinatu da azkenean eta PNVko zinegotzi baten botoa beharrezkoa izan da

Aitor AROTZENA

Igerilekuko lanak ordaintzeko Udalak eskatu duen maileguaren inguruan bere jarrera zehaztu nahi izan du PNVk eta mailegua eskatzearen beharra hasieratik argi ikusi dutela adierazi du, *«aurrekontu zorroztasunik ez dagoela salatzeaz gain, argi dugulako herriaren onura eta aisia kasu honetan salaketa politikoaren gainetik dagoela»*. Hortaz, argi aipatu dute mailegua ahalbidetzea eta ez oztopatzea dela beraien nahia, eta halaxe erran zuten urtarrilaren 23ko plenoan ere, *«mailegua onartu eta lana ordainduko ez balitz, kalkula ezin daitekeen ondorioak izan ditzaken epaitegietako konfliktoan sartzeko arriskua dagoelako»*.

PNVren ustez, lehen ondorioa instalazioen itxiera izanen litzateke eta erabiltzaileek jasan beharko lukete, *«arazoaren sorreran inolako zerikusirik izan gabe»*. PNVk bere ezinegona adierazi nahi izan zuen batzar hartan, *«gastu batzuk aurrekontu-zorroztasunik gabe ordaintzen direlako eta egoerarekin ados ez gaudelako»*. Halere, maileguaren eskaera onartzeko beharrezkoak ziren botoak emateko prest agertu zen. Batzarrean, PNVren aldeko bozkarik ez zen behar izan erabakia hartzeko. Hortaz, *«salaketa aurrera eramatearren, proiektua kolokan jartzeko arriskurik ez zegoela jakinda»*, ezezko bozka eman zuen.

Baina Udalak azkenean ezin izan du sinatu mailegurik Euskadiko Kutxarekin, eta bertze aukerari heldu eta Nafarroako Kutxarekin egin du. Aldaketa hori gauzatzeko bozketa egin behar izan zen berriz ere otsailaren 27an. Onineko zinegotzi bat falta zenez, PNVk beharrezkoa zen aldeko bozka hori eman zuen eta bertze lau zinegotziek kontrako botua mantendu zuten, protesta eta salaketa moduan.

UTZITAKO ARGAZKIA

Elizako teilatua eta katekesi-gela moldatu dira

Urtarrilean akautu ziren San Martin Elizako teilatua berritzeko lanak. Kaperan, Seroraren etxean eta parrokiko zentroan egin diren lanekin batera 273.575 euroko gastuak eragin ditu. Sarrerak, berriz, 108.550 eurokoak izan dira, 48.880 euro lesakarren emarien bitartez; 35.600 euro parrokiak berak paratu du eta 24.070 euro *Zuk aukeratu, zuk erabaki*kanpainarekin lortu dira. Teilatuko lanak enpresa batek egin baditu ere, bertze hainbat 25 bat erretiratuk egin dituzte borondatez: ezkildorreko gurutzea konpondu, Seroraren etxean katekesia eta bilerak egiteko aretoa egokitu… Denei eskerrak eman nahi izan dizkie Pedro Laskurain apezak. Orain, ezkildorrea konpontzeko proiektuari ekin nahi diote, 65.000 euro aurrekontuarekin.

Beti Gaztek ia 190.000 euroko aurrekontua izanen du aurten

Mastegiko aldageletako lanek igoera eragin dute

A.A.

Otsailaren 27an egin zen Beti Gazteko Batzar Nagusian iazko ekitaldiak eta kontuen balantzea aurkeztu zen. 8.806 euroko defizita izan zuen iaz Beti Gaztek, 92.455 euroko sarrerak eta 101.262 euroko gastuak izan baitzituen.

Aurten igoera nabarmena izanen duen aurrekontua ere onartu zen. Mastegi futbol-zelaian egiten ari diren aldageletako lanetan 120.000 euro inguruko inbertsioa egin beharko da eta Beti Gaztek, Nafarroako Kutxaren *Zuk aukeratu, zuk erabaki* kanpainan sartu du proiektua.

Beraz, denera, 189.300 euroko aurrekontua izanen du Beti Gaztek. Gastu gehiena, 163.000 euro, futbolak eraginen du, tartean aldagelako lanak daudela. Diru-sarrera nagusia ere futboletik dator, 143.000 euro.

Aurten egin beharreko ekitaldiei dagokienez, iaz berreskuratu zen mendi bizikleta aurten ere eginen da irailean eta futbol eta herri kirol taldeek bere konpetizioekin segituko dute. Aipatzekoak dira mendi taldeak egiten dituen ateraldiak ere. Mendi taldeko kideek, herrian barna igarotzen den GR11 ibilbidea markatu dute, San Antonetik hasi eta Etxalarko zenbait zati arte.

ETXALAR

Martxoaren 19an 150 urte beteko ditu San Jose Zurginaren Kofradiak

Urteurrena ospatzeko meza, argazkia eta bilera eginen dituzte elkarteko kideek

Joseba eta Nerea

Ortzegun honetan, martxoak 19, San Jose Egunean, 150 urte beteko ditu Etxalarko San Jose Zurginaren Kofradiak.

Gazte eta ez hain gazte aunitzek seguru sekula ez dutela aditu Kofradia honen inguruko berririk, baina tradizio luzeko Kofradia da, belaunaldiz belaunaldi pasatzen joan dena.

ARGAZKIA: FIDEL CRUZ

Argazkia 1959koa da, San Jose Zurginaren Kofradiak ehun urte bete zituenekoa. Jabier Indaburuk aipatu digunez, argazki horretatik sei lagun bakarrik bizi dira gaur egun, bera barne.

JABIER INDABURU ETA TEODORO IRIBARREN ARDURADUNAK

Mendeurrena ospatzeko egin zutenean bezala, mende bat eta erdi betetzea ere modu haundian ospatuko dute. Gaur egun 88 lagun biltzen ditu Kofradiak eta martxoaren 19arekin elkarteko kontuak egiten dituzte.

Jabier Indaburu eta Teodoro Iribarren dira San Jose Zurginaren Kofradiako arduradunak.

MEZA, ARGAZKIA ETA BILERA

Eguna goizean, 11:30ean abiatuko dute, hildako bazkideen omenez eginen den mezarekin. Normalean Bestaberri egunean bakarrik ateratzen den bandera paratuko dute Elizan, urte berezia delako eta, ondotik, Elizako atarian argazkia aterako dute, egun berezi horren oroigarri gisa. Bazkide batzuk herritik kanpo bizi dira eta zaila izanen da denak biltzea, baina ahalik eta gehien bildu nahi lituzketela aipatu digu Jabier Indaburuk.

Eguerdian, 13:30-ean Elutsa ostatuan elkartuko dira, urteroko gastuak kobratzeko eta elkarteari buruz solasteko. Jabier Indaburuk eta Teodoro Iribarrenek 25 urte daramazkite arduradun lanetan eta txanda emateko tenorea ailegatu dela pentsatzen dute.

Sagardotegira autobusa

Azkeneko lauzpabortz urteotan bezala, aurten ere autobusa antolatu zuten herriko gazteek sagardotegira joateko. Joan den martxoaren 14an Hernaniko Otsu-Enean izan ziren, aurtengo sagardo denboraldia inauguratu eta sagardoa probatzen. Afalondotik, nola ez, goizeko ordu ttikiak arte egin zuen besta 40 lagun inguruko kuadrillak.

Altxatako Batzar Orokorra

Heldu den martxoaren 28an eginen dute Altxata Kultur Elkarteko Batzar Orokorra. 18:00etan da hitzordua Kultur Etxean. Urteko ekintzak errepasatu, balantzeak egin eta hurrengo urteko proposamen berriak aztertuko dituzte.

Aurten ez da Junta berritzerik mahaigaineratuko, joan den urtean berritu baitzen. Beraz, honako bortz hauek segituko dute Juntan: Arantxa Danborienak, Garbiñe Maiak, Mireia Martinezek, Onintze Zinkunegik, Leire Olagaraik eta Xabier Etxartek.

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

MERTZERIA Deño LENTZERIA
LESAKA

ttipi ttapa
(0034) 948 635458

ZOANSA
SEAT HYUNDAI Audi
ZOANSA
MARKA GUZIEN KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaiaga industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

IGANTZI

Abesbatzaren XX. urteurreneko ospakizunak abian dira

Datozen asteetan Betelu eta Berako abesbatzek kontzertua emanen dute

ttipi-ttapa

Aurtengo irailean 20 urte beteko dira Igantziko Abesbatzak bere lan egiteko modua aldatu zuenetik. Ordura arte parrokiako abesbatza izan zen. 1989an, Juan Bautista Iratzoki orduko apaiza eta abesbatzaren zuzendaria Leitzara joan zen, eta Isabel Lakar lesakarrak hartu zuen abesbatzaren zuzendaritza.

Abesbatzak ibilbide berri bat hasi zuen. Astero biltzen hasi zen, eta, elizako kantuez gainera, errepertorioa zabaltzen hasi zen. Ondorioz, urtean zehar egiten diren meza nagusienetan kantatzeaz gainera, hainbat kontzertu emateko aukera sortu zitzaion, herrian nahiz kanpoan. Eta, bide horretan, inguruko abesbatzekin harremanetan jartzeko aukera izan du.

Abesbatzak egindako bidea eta lana kontuan hartuta, urteurren hori ospatzea erabaki du, lagun izan dituen honako abesbatzekin batera: Betelukoa —gaur egun Juan Bautista Iratzokik zuzentzen duena—, Lesakakoa, Berakoa eta Giltzarri. Ekitaldi nagusia abenduaren 19an izanen da, eta bertan abesbatza horiek Igantzikoarekin batera arituko dira.

ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Igantziko Abesbatza abenduan kontzertua eskaini zuenean.

BETELUKO ETA BERAKO ABESBATZEN SAIOAK

Urtean zehar aipatutako abesbatzak Igantzin kontzertu bana eskainiko dute. Lehena Beteluko Abesbatza izanen da; larunbatean, martxoak 21, kontzertu bat eskainiko du Igantziko elizan. Lehenik, meza kantatuko du, eta ondotik, 20:30ean, kontzertua eskainiko du. Guztira hamar kantuko errepertorioa ekarriko du Bautista Iratzoki zuzendariak, nagusiki kantu herrikoiez osatua.

Ondoko larunbatean, martxoak 28, Berako Abesbatza etorriko da. Lehenik, meza kantatuko du, eta ondotik kontzertua eskainiko, elizan. Hortaz, hitzordua 20:00etan izanen da.

GAINERAKO EKITALDIAK

Ekainean Lesakako Abesbatzaren kontzertua izanen da, eta urrian Giltzarri abesbatzarena. Baina, kontzertuez gainera, Igantziko Abesbatzak urteurrena ospatzeko bertzelako proposamenak ere baditu.

Errate baterako, ekainaren 6an, egun bateko irteera antolatuko du Arabako Errioxa aldera. Bodegetara bisitaldi bat egin ondotik, horietako batean bazkaria eginen da.

AZOKA

Kontzertuak antolatzeko gastuak ordaindu ahal izateko, abesbatzak datorren maiatzaren 1ean azoka antolatzea aurreikusi du. Duela bi urte Euskara Batzordeak herriko maparen gastuak finantzatzeko egin bezala, etxez etxe bilduta ko produktuekin merkatu bat eginen da, eta hortik biltzen den dirua ekitaldiak finantzatzeko erabiliko da. Laster abesbatza herritarrekin harremanean jarriko da, eta azoka honetan zer aportatzen ahal duten eta zertan laguntzen ahal duten azalduko die.

BORTZIRIAK

Inmigrazioari buruzko lehiaketako saridunak

ttipi-ttapa

Hamarretik Zortzi izenburupean, Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak inmigrazioari buruzko ipuin eta marrazki lehiaketa antolatu zuen joan den urte akaberan. Orain, berriz, sariak banatu dituzte. Etxalarko Landagain eskola, Lesakako Tantirumairu Ikastola eta Irain eskola publikoa eta Berako Jesusen Bihotza ikastetxeko ikasleak izan dira parte hartu dutenak. Bi kategoriatan banatuta, 7 urtetik beheitikoek marrazki lehiaketan parte hartu dute eta 8-12 urtekoek ipuin lehiaketan. **7 urtetik beheitikoetan**, Iker Telletxea (Jesusen Bihotza) izan da irabazlea; 2. Arnaldo Vicente (Landagain) eta 3. Iñaki Prieto (Irain); 4. Aritz Otxoteko (Irain); 5. Jone Etxalar (Jesusen Bihotza); 6. Anai Rath (Landagain). **8-12 urte bitartekoetan,** lehen saria Amaia Leizarentzat izan da (Tantirumairu); 2. Johanna Ramirez gelditu da (Irain);3. Goiatz Jauregi (Landagain); 4. Jaione Telletxea (Tantirumairu); 5. Miren Telletxea (Jesusen Bihotza); 6. Idoia Irazoki (Irain).

ARANTZA

Martxoaren 28an sagardotegira ateraldia eginen da

Gazte Asanbladak eta Ekaitza Elkarteak autobusa antolatu dute

Nerea ALTZURI

Ez da lehenengo aldia eta ez dadila hondarrekoa izan gainera! Aunitzek sagardotegiko denboraldian itzuli bat edo bertze egiten dute eskualdeko nahiz Gipuzkoako sagardotegietara. Ekaitza Elkarteak eta Gazte Asanbladak aspaldixkotik herritik autobusa antolatzen dute. Hala, martxoaren 28an, Hernaniko Iparragirre sagardotegian bazkaria izanen da eta bazkalondoa biharamun goizaldera bitarte luzatzeko aukera dago. Txartelak hilaren 22ra arte ostatuetan egonen dira salgai.

Korrika

Korrika martxoaren hondarrean ailegatuko da ingurura, eta herritik pasako ez den arren, ekimenarekin bat eginez, herriko elkarteek eta Udalak kilometroak erosi dituzte. Gazte Asanbladak, Ekaitza Elkarteak, Udalak eta Guraso Elkarteak euren ekarpena egin dute euskararen alde, eta orain korrika saioa egitea bertzerik ez da gelditzen.

Bertzalde, aipatu, Korrika Ttikia egiteko asmoa ere badagoela, baina apirilaren 4an izanen denez, hurrengoan emanen ditugu xehetasunak.

Herri kirol jolasak

Nafarroako Herri Kirol Jolasen barne, kimuen kategorian herriko talde bat parte hartzen ari da. Orain arteko denborak aintzat hartuz, Berriozarko finalerako txartelik ez dute lortuko, baina tira, ederki pasatu dituzte orain arteko topaketak.

Udal informazioa

Aitzinekoan aipatu ez genituen udal txostenetako berriekin osatuko dugu behar bezala ataltxoa.

UR DEPOSITUA

Ur depositu berrian kalteak antzeman direnez, Udala Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarri zen konponbidea emateko. Lanak egin zituen enpresak bere akatsa onartu zuen eta urtarrilean moldaketak egin zituen. Oraingoz badirudi arazoa konpondu dela, baina depositua *«zorrotz»* zainduko duela erran du Udalak.

ESKOLA ZAHARKITUA

Erabat zahartzen ari da eskola eta aurtengo aurrekontuetan, zenbait konponketa egiteko diru partida bat erabiliko da. Hilabete honetan Nafarroako Gobernuak dirulaguntza deialdia egiten duenerako prest da eskaera eta honetarako 30.000 euro inguruko gastua aurreikusi da. Horrekin, berogailu sistema egokitu, griferia eta komunak konpondu… Halakoak egitea planteatu da.

MENDIAK

Aitzineko alean, mendiko lanen inguruan, aurtengo proiektuan zein lan bildu diren ez genuen aipatu. Basartea enpresak burutu du egitasmoa eta lan hauek eginen dira: Unanu aldean landaketa berriak, Ametxoko zerrakura batzuk bildu, udako garbiketak, eskolako haurrek eta ehiztariek egiten dituzten landaketak, Mugarai alderdian larrea desbrozatu, Oilargatako pista zati batean hormigoia bota… Lan hauetako batzuk auzolanean edo herriko langileekin eginen dira. Gainerakoa Sunbillako Pako Altzuriren enpresari esleitu zaio, 24.563,54 eurotan.

EUSKARAREN BUZOIA

UEMAk administrazioan euskararen normalizazioa bulkatzeko euskararen plana prestatu du eta Udalak aho batez onartu du. Dagoeneko Herriko Etxean indarrean dago eta euskararen erabileraren inguruko kexak jartzeko edo edozein ekintza zoriontzeko buzoia udal bulegoetan dago.

ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

Dantzariak lanean!

Argazkia iazko bestatan ateratakoa da. Ba, abuztuari begira entsaioetan hasi dira dantzariak. Ortziral eta larunbatetan, egunak txandakatuz lanean ari dira. Aste batean, ortziralean 19:30ean eta hurrengoan, larunbatean 17:30ean biltzen dira. Aldi honetan ortziralean ariko dira. Momentuz 17 inguruko taldea dago eta Amaia Apezetxea eta Amaia Telletxea dira erakusleak.

KULTURA

Eskualdeko 60 gaztetxo martxoaren 28ko Haur Kantari Jaialdian ariko dira Elizondon

17:00etan hasiko da saioa Lur dantzalekuan

ARTXIBOKO AGAZKIA

Guztira 12 talde, bakarlari eta bikote ariko dira Elizondon.

ttipi-ttapa

Baztan, Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko 60 neska-mutiko inguruk hartuko dute parte Haur Kantari Jaialdietan. Euskal Kantuzale Elkarteak antolatuta, martxoaren 6an abiatu ziren saioak, eta oraindik bertze bi gelditzen dira. Horietako bat asteburu honetan jokatuko da Altsasun, eta laugarrena martxoaren 28an Elizondoko Lur dantzalekuan, 18:00etatik aitzinera.

Elizondon larunbat honetan zortzi jokatuko den saioan **Ttipi-Ttapa**k hartzen duen eremuko gaztetxoek hartuko dute parte.

BAZTANGO PARTAIDEAK

Baztan Ikastolatik Xixuko Taldeak hartuko du parte. *Pottoka* izeneko abestia aukeratu dute eta guztira 12 neska-mutiko aterako dira.

BERAKO PARTAIDEAK

Berako Jesusen Bihotza ikastetxetik ere taldean aurkeztuko dira. Axuriak Taldeko boskoteak Lor Taldearen *Zure doinua* kantua aukeratu du.

Herri bereko Larun Taldean dauden hamar lagunek, berriz, Imuntzo eta Belokiren *Sorginduk* kantatuko dute eta Xantel Taldeko bertze hamarrek *Euri ttanttak* abestia.

Izaro Iriarte bakarlariak ere kantatuko du, Ken Zazpi taldearen *Haizea*, hain zuzen.

DONEZTEBEKO TALDEA

Doneztebeko San Migel Ikastetxe Publikoak ere ordezkaritza izanen du jaialdian. Juantxo Zeberioren *Musu bat* eta Latzenen *Laztana* kantuak taularatuko ditu 14 laguneko taldeak.

GOIZUETATIK BAKARLARIA ETA BIKOTEA

Goizuetako Xalto eskolakoek ere ez dute hutsik eginen Haur Kantari Jaialdian. Ainhoa Zabaletak berak eginiko *Itzaltzen zoazela* kantua abestuko du bakarrik, eta horrez gain, Oihane Zugarramurdirekin bikotean Hesianen *Esaidazu*.

LEITZAKO BAKARLARIAK ETA GABEZIN TALDEA

Leitza Erleta ikastetxetik hiru bakarlari joanen dira Elizondora kantatzera.

Naia Barriolak Sugan taldearen *Espetxeratua* eta Antton Valverderen *Iragana ahaztua* aukeratu ditu; Garazi Erbitik Iriondoren *Errota zaharra* eta Hesian taldearen *Behar zaitut* eta Leire Erbitik, azkenik, *Txatxamatxalinatxu* kantu herrikoia.

Leitzako Gabezin Taldeak, bertzalde, Goazen-en *Zu ta ni* eta Hesianen *E.H. autodeterminazioa* abestuko ditu.

Elizondoko saioaren ondotik, bukaerako jaialdia, apirilaren 5ean eginen da Iruñeko Gaiarre antzokian, 17:00etan.

SUNBILLA

Martxoko azken asteburuan eginen dira Kultur Egunak aurten ere

Horrez gain, hilaren 30ean, Korrika 16 pasako da herritik

Jaione OTXANDORENA

Antzakaitz Kultur Taldea, Eskolako Guraso Elkartea eta Antrotokiko gazteen artean Asteburu Kulturala antolatu dute martxoko azken astebururako. Lehengo urteko egitarauari segitu diote Kultur Egunak antolatzeko.

KORRIKA 16

Kultur Egun horien barne, eta egitarauan azaltzen den moduan, Korrika 16 gure herritik pasako da martxoaren 30ean, 15:30ean. Antrotokik erositako kilometroa San Tiburtzio parean hasiko da eta Itturburu ondoraino joanen da. Hemen Ulibeltzak Elkarteak eta Udalak erositako kilometroaren txanda izanen da, Kontxako gasolindegiraino bitartean.

EGITARAUA

Martxoak 27, ortzirala

16:00etan *Korrika Ttikia* herrian barrena.

ARGAZKIA: J. OTXANDORENA

Neska-mutikoek ederki pasatzeko aukera izanen dute Asteburu Kulturalean.

Ondotik haurrendako *jokoak*.

22:00etan *Mus Txapelketa* Ulibeltzak Elkartean.

Martxoak 28, larunbata

11:00-13:00 Munduko Kultura Ezberdinen *gastronomia lehiaketa*.

11:30ean *haurren herri kirolak*.

14:30ean *bazkaria* Ulibeltzak Elkartean.

16:30-19:00 birziklatze *tailerra* eta *jokoak* haurrendako.

18:00etan haurrendako *berendua*.

18:00etan *poteoa*.

Ondotik *pintxoak* txoznan.

21:00-22:00 *dantzaldia* Jalisko Band eta Jaione Olazabalekin.

23:00etan Luz de Putas taldearen *kontzertua* 00:30ean gaupasa.

Martxoak 29, igandea

10:00-13:30 Bigarren *Gazta Lehiaketa* eta *Artisau Feria*.

11:00etan herriko *trikitilarien* emanaldia.

14:00etan *bazkaria* Ulibeltzak Elkartean.

17:00etan herriko haurren *dantza saioa*.

18:00etan *txokolatada*.

Ondotik haurrentzako *antzerkia*.

LITERATURA

Etxepare Sarian parte hartzeko epea zabalik

ttipi-ttapa

Haurrentzako euskarazko albumak sortzeko Nafarroako Udaletako Euskara Zerbitzuek antolatzen duten Etxepare Saria abian da. Nafarroan euskarazko literaturari dagokion sari aipagarririk ez zegoelako abiatu ziren Etxepare literatur sariak 2004an eta hasieran beka zena, sari bilakatu da orain. Lehiaketa zabalik dago eta azaroaren 30a arte izanen da lanak aurkezteko epea eta epaimahaiak erabakia hartzeko azken eguna 2010eko martxoaren 31 izanen da. Helbide honetara bidali behar dir lanak: *Etxepare Saria. Leitzako Udala-Euskara Zerbitzua. Elbarren 1, 31880 Leitza*. Saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du euskaraz, eta Faktoria K de libros-ek gaztelaniaz eta galegoz. Horrez gain, 6.000 euro jasoko ditu irabazleak. Informazio gehiago: *www.etxeparesaria.net*en. Antolatzaileen artean, Baztango Udala, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Mankomunitatea eta Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea daude.

ITUREN

Ibintza Kultur Taldeak Korrikaren lekukoa hartuko du Basakabin

Martxoaren 28an euskararen alde lasterka egitera joateko gonbitea egin die herritarrei

Arkaitz MINDEGIA

Martxoaren 28an eta 30ean gure eskualdetik pasako da Korrika. Nahiz eta Iturendik ez igaro, aurten ere Ibintza Kultur Taldeak kilometroa erosi du. Korrika Basakabiko kaskoan hilaren 28an, larunbat arratsaldean pasako da eta hantxe hartuko du lekukoa Ibintzak.

Ea animatzen den jendea euskararen alde korrika egitera.

Erraldoiak, Kilikiak eta Txiki Park

Apirilaren 3an eskolako Haur Hezkuntza eta lehenego eta bigarren mailako ikasleek txangoa eginen dute Iruñara, Sunbilla, Legasa eta Narbarteko eskolako ikasleekin batera. Erraldoi eta Kilikiak ikusiko dituzte eta ondotik, Txiki Parken pasako dute bazkalondoa.

Zozketa eskolan

Guraso Elkarteak urtean zehar sortzen diren gastuei aurre egiteko boletoak jarri ditu salgai. Egun hauetan ikasleak etxez-etxe, lagunei, familiakoei eta herritarrei boletoak saltzen dabiltza. Hiru sari izanen dira: lehendabiziko saria Altxunea erretegian bi lagunendako afaria, bigarrena bi txanpan botila eta hirugarrena txerrikume bat. Zozketa apirilaren 8an eginen da, 12:00etan eskolan.

Lerro hauen bidez, Guraso Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten guztiei. Hurrengo aldizkarian irabazleak aipatuko ditugu.



ARGAZKIAK: MIRIAM ALTZURI

Jende aunitz ez, baina giro paregabea bertso afarian

Jende aunitz bildu ez arren, bertso eta musikari esker bildutako 30 lagunek ederki pasatu zuten martxoaren 7ko bertso afarian. Aurrerantzean *www.bertsoplaza.tv*en ikusi ahal izanen dira afariko bertsoak.

Emakume afaria

Martxoaren 12an, Altxunea erretegian Auritzko 25 emakumek giro ederrean ospatu zuten Emakumeen Egunа.

Joaldunak ETBn

Joan den ortzegunean pertsona ezagunen bisita izan genuen. Ziur gehienek ezagutuko dituzuela *Wazemank* saioko pertsonaiak, ba horiexek etorri ziren. Saioak prestatzen ari dira eta Iturengo joaldunak agertuko dira horietako batean. Denborarekin jakinaraziko dugu noiz agertuko diren.

Telletxea Idigorasen lehen urtemuga

Jose Ignacio Telletxea Idigoras euskaltzain urgazlearen heriotzaren lehen urtemuga gogoan, martxoaren 7an hainbat ekitaldi egin ziren San Martin Elizan. 18:00etan Eukaristia, 19:00etan *Me hicieron un Templo, Romería en la Trinidad del Mendaur* artikuluaren errezitaldia eta 19:30ean kontzertu ttiki bat egin zen.

DONEZTEBE

Etxe zaharrenei izena eta eraikitze data dituen plakak paratu dizkiete

Horretarako, Gobernuaren dirulaguntza jasoko du Udalak

ttipi-ttapa

Arrabitenea 1574koa da, Maribergaranea 1592koa, Matxilenea 1607koa, Martizenea 1568koa... Datu horiek emanez, etxearen izena eta noiz eraiki ziren paratu dituzte etxe zaharrenen ate ondoetan.

Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuaren deialdi bati erantzunez, Udalak seinalizazioak paratzeko dirulaguntza jasoko du eta horrekin paratu ditu plakak etxerik zaharrenetan, Josu Goldaraz apaiza zena eta Madrilen bizi den Caridad Larregla donezteBarraren jakinduriari esker.

Plaka horiez gain, Udalak panelak ere egin ditu. Herriko planoa eta karrika bakoitzean plaka zein etxek duen ageri dira panel horietan.

Hirugarren egitasmo bat ere egitekotan dira Herriko Etxean. Herri sarreran panel haundi batzuk paratu nahi dituzte, Miguel San Miguel alkateak **ttipi-ttapa**ri adierazi dionez, *«turismoa indartzeko helburuarekin»*. Panel horietan Donezteboko zerbitzuen berri emanen da.

Aurrekontua

12.000 euroko aurrekontua izan dute lanek, eta subentzioa %60 ingurukoa izanen da.

Xabierrera autobusa beteta

Joan den larunbatean, hilak 14, Xabierraldian parte hartzeko autobusa antolatu zuen Errekak. Urtero urtero arrakasta haundia izaten duen ekimena da eta aurten ere autobusa bete egin zen.

Argazkia: Ttipi-Ttapa

Gisa honetako plakak paratu dituzte etxerik zaharren atarietan, etxearen izena eta eraikitze datarekin.

Argazkia: Pablo ELIZONDO

Errekako seniorrak bigarren postuaren bila

Errekako talde seniorra sekulako denboraldia egiten ari da aurtengoan. Duela bi asteburu, Anaitazarra liderraren kontra jokatu zuen Iruñan, baina ez zuen garaipenik lortu. Aipatu, hori bai, 80 zale inguru hurbildu zirela Donezteboetik taldea animatzera. Halere, liga ez da akitu, eta bigarren postua lortzeko lehia interesgarrian dago murgildua Erreka. Urte aunitz dira taldea hain ongi sailkatua egon ez dela. Oro har, Erreka taldean eskubaloia momentu onean dago, seniorren denboraldi bikainaz gain, inoiz baino haur eta gazte gehiago daudelako kategoria desberdinetan.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA
Langile autonomoak
Nekazariak eta mendi langileak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-Kontratutarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitorpenak
Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
artekari@artekari.com
LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

arkiamak
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA
ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONSULTAK
INFOGRAFIA: 3D
ELIZONDO · Santiago, 54 behea · 948 581 931
BERA · Eztegara, 8 behea · 948 635 232

URROTZ

Azken aldiko euriteek kalteak eragin dituzte Leurtza inguruan

Urrotz eta Beintza-Labaiengo Udalak Leurtzaren etorkizunari buruz solastu dira

Joseba URROTZ

Urrotzen, azken aldian bezala uholdeak izaten direnean, ez dagu errekak gainezka egiteko arrisku haundirik, herrian zelai gutti baitago. Hala ere, kalte batzuk sortu zituen, gehien bat lubiziak edo lur mugimenduak. Normalki lur azpitik joaten den erreka zatitxo bat agertu egin zen, errate baterako, edo belagi bateko zati haundi bat arraildu eta mugittu. Baina bertze gisara, Leurtzako urtegietako inguruan ere izan da saltsarik.

Aitzineko aldiren batean gertatu bezala, bide azpitik igarotzen den hodi bat trabatu, eta ura bere zabor guziekin bidearen gainetik joan zen. Honetan aldaketarik bazegoen, ezinduentzat egin zen ibilbidearenak, alegia. Ibilbide horretan dagoen espaloi gisako hesi ttikiak zaborrei eutsi zien, eta dena sarrerako zelaian pilatu zen, argazkian ikus daitekeen gisan.

ARGAZKIA: J. URROTZ

Zaborra eta ura dena sarreran pilatua gelditu zen.

EZTABAIDA LEURTZAREN INGURUAN

Leurtzakoaren haritik, eztabaida edo guttienez solas egin da Urrotz eta Beintza-Labaiengo Udalen artean, inguru hartan dagoena baino aktibitate gehiago paratu ala ez erabakitzeko. Momentuz, dagoen bezala segitzea erabaki da, eta hainbat kirol jarduera eskaintzeko Malerrekako enpresa batek egin zuen eskari bati uko egin zaio.

Nafarroako Gobernuarekin solastea erabaki zen, Caixaren dirulanguntzaz egin zen ezinduentzako ibilbide hori dela-eta, dexente haundituko diren mantenimendu gastuei aurre egin ahal izateko, diru gehigo eskuratzeko asmoz. Orain arte Nafarroako Gobernuko Ingurugiro Sailak 37.000 euro inguru ematen ditu urtero mantenimendu gastuetarako. Halere, badirudi Turismo Departamentuak ere hainbat asmo dituela Leurtzarako, eta hortaz ere aritu beharko de gerora begira.

PEDRO GARMENDIA, S.A.

Tel.: 948 580 431 - 948 580 436 - 608 977 685
Faxa: 948 580 973
ELIZONDO (Nafarroa)
garmendia@red.renault.es

GRAN MODUS DYNAMIQUE 1.5DCI 85CV

ABS · 4 Airbag ·
Irrati MonoCD
alboko agintearekin
Aleaziozko-hagunak
Pintura metalizatua
Aire-klimatizagailua
Abiadura mugatzailea
AUTO BAT BAINO GEHIAGO

CLIO DYNAMIQUE 1.5DCI 85 CV

ABS · 4 Airbag
Irrati MonoCD alboko agintearekin
Aleaziozko-hagunak
Pintura metalizatua
Aire-klimatizagailua
Abiadura mugatzailea

BERRIA

LAGUNA PRIVILEGE 2.2DCI 150CV

ABS · 8 airbag · Parkineko freno automatikoa
18"ko aleaziozko hagunak
Pintura metalizatua · Bi-zona klimatizagailua
Pneumatikoen presio detektagailua
Xenon argiak · Argi garbigailua · Bluetooth
Larruzko tapizeria · Abiadura mugatzailea
CABASSE irratia · 6CD aurretik kargatzekoa
MP3 · SAFE · ASR -ESP
GARANTIA: 2011ko martxoa bitarte

BERRIA

KANGOO COMBI EXPRESSION 1.5DCI 85CV

ABS · 2 Airbag · Irrati MonoCD
Alboko ate lerrakor bikoitza
Maletero-lekuko ate altxagarria
Aire-girotua · Irrati Mono CD
Pack elektrikoa
Pintura metalizatua

TWINGO PRIVILEGE 1.2 70CV

Pack elektrikoa
Aire girotua
Irratia MonoCD

MASTER 2.5DCI FURGON 3500 120CV

ABS · 2 Airbag
Alboko ate lerrakorra
Aire-girotua
Txasis luzea
Altuera gehiagokoa

**TRAFIC 1.
FURGON 1**

ABS · 2 Air
Alboko ate ler
Aire-girotua · Tx
Egurrezko barne
Altuera gehia

SCENIC DYNAMIQUE 1.5 DCI 105CV

ABS · 4 Airbag · Pack elektrikoa
Aluminiozko-hagunak
Aire-klimatizagailua
Irratia MonoCD · Ordenagailua
Abiadura mugatzailea
Erretrobisore elektrikoak
Lainoetako faroak
Esku libreko txartela
Ukondoak jartzekoak

LAGUNA GRAN TOUR PRIVILEGE 2.2DCI 150CV

ABS · 6 Airbag · Aluminiozko hagunak
Abiadura mugatzailea · Klimatizagailua
Auto gaineko barrak · Larruzko tapizeria
Egurrezko barne akituak · Argi garbigailuak
Hurbiltasun radarra · Gibeleko kortinak
Argi eta haizetako-garbigailu automatikoa
Cabasse CD kargatzeko irratia
Bluetooth · Nabigatzailea

MEGANE EXPRESSION 1.5DCI 105CV

ABS · 4 Airbag
Satelite bidezko
irrati MonoCD
Pintura metalizatua
Aire-klimatizagailua
Abiadura mugatzailea

GRAN ESPACE EXPRESSION 2.2DCI 150CV

Txasis luzea · 7plaza
ABS · 8 airbag
Auto gaineko barrak
Aire-klimatizagailua
Pintura metalizatua
Irrati CD (6 CD kargatzekoa)
urrutiko kontrolarekin

MODUS DYNAMIQUE 105CV

ABS · 4 Airbag · Pack elektrikoa
15" Aluminiozko-hagunak
Aire-klimatizagailua
6 velocidades · Norabide kontrola
Lainoetako faroak
Erretrobisore elektrikoak
Irrati MonoCD alboko agintearekin

KANGOO FURGON GRAN VOLUMEN 65CV

Txasis luzea · Pack elektrikoa
Aire-girotua · Irrati MonoCD
Eskuinean alboko ate lerrakorra
Bidaiariaren eserleku etzangarria
Kargatik bereizteko hesi pibotagarria

C 1.9DCI ON 100CV

2 Airbag
e lerrakorra
· Txasis luzea
arne estaldura
gehiagokoa

KANGOO EXTREME 4X4 90CV

4 gurpiletako trakzioa
Aire girotua
Aleaziozko-hagunak
Irratia MonoCD
Auto gaineko barrak
Alboko konpartimenduak,
hegazkinetakoen erakoak
AUTO BAT BAINO GEHIAGO

EZKURRA

7.950 euro kostako dira Elizako erlojua mekanizatzeko lanak

Iruñeko San Martin erloju-denda arduratuko da zaharberritze elektronikoa egiteaz

Fernando ETXEBERRIA

Herriko erlojuaren zaharberritze elektronikoa. Izen horrekin aurkeztu du Udalak Elizako erlojua mekanizatzeko proiektua Nafarroako Kutxaren *Zuk aukeratu, zuk erabaki* egitasmoan. Lanak egitea 7.959 euro kostako da.

Asmoa aurrera ateratzeko, herritar guztiei oharra bidali zaie, Nafarroako Kutxan kontua dutenek euren laguntza eman dezaten behar den inprimakia betez. Ez da deus ere ordaindu behar.

ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Elizako erlojua da argazkian ageri dena.

HERRITARRENTZAT GARRANTZI BEREZIA

Ezkurraren historian, betidanik garrantzi haundikoak izan dira Elizako kanpaiak eta dorrean dagoen erlojua.

1722an herriko jauntxoari aurre egin, eta erretaula nagusia zaharberritu nahi izan zuten bizilagunek. Urte hartako maiatzaren 11n alkateak herri guztia bildu zuen plazan kanpaien doinuen bitartez, eta Santa Carako markesaren kontrako auzia irabazia zela adierazi zuen.

1816ko ilbeltzaren 17an, kanpaien bidez, herritarrak eta Udala Herriko Etxean bildu ziren eta erlojua hondatua zegoela jakinarazi zieten errejidoreari. Herritarrak eta bisitariak kaltetuak izan ez zitezen, erloju berria paratzea erabaki zela ere orduan adierazi zieten. Gastua Udala eta Elizaren artean erdi bana egitea adostu zen.

Obra Beteluko erloju-konpontzaileari agindu zitzaion, 300 pesoren truke.

1957an Joakin Erbiti erloju-konpontzaileak gaur egun dagoen erlojua jarri zuen martxan eta oraingoa Iruñeko San Martin erloju-dendak ordezkatu du erloju mekanizatua jartzen duenean.

BI HERRITARREN LANA

Erloju mekanizatu berria instalatzen den egunean, Dioni eta Jose Fermini esker onezko omenaldia egitea ez litzateke gaizki egonen. Lehenengoari egunero-egunero Elizara joan eta goizean 8:00etako kanpaiak, 12:00etakoak eta ilunabarrekoak jotzen dituelako. Ohitura hori gure herrian bakarrik mantendu da. Jose Fermin, berriz, erloju zaharrak behar bezala funtziona dezan arduratu izan da, eta astean bitan dorrera joan pesak igo eta makineriaren engranajea koipeztatatu izan du.

Bi herritar hauei esker, meza edo bestelako gertaera bereziak, hileta-elizkizunak, adibidez, noiz diren jabetu izan gara gainerakoak.

Sagardotegira ateraldia

Joan den larunbatean, martxoak 14, Adunako (Gipuzkoa) sagardotegira joan ziren herritar batzuk. Autobusez joan ziren eta sagardotegian afaldu ondotik Hernanin jarraitu zuen bestak.

SALDIAS

ARGAZKIA: M. LIZASOAIN
Hamaika aldiz ikusten ari gara aurten irudi hau.

Akituko ote da negua?

Laster egiteko gogoa daukanak hor izanen du Korrikako lekukoa

Markel LIZASOAIN

Jendea ez dago geldirik egoteko atzeneko boladan herrian. Eta ederki aprobetxatu du hondarreko on aldia; eguzkia agertu orduko barakuiluak bezala atera dira herritarrak kanpo lanera: bateko hesia konpondu behar dela, sasiak erre behar direla, besteko adarrak moztu behar direla, ongarria ere atera behar...; izaten da tenore honetan zer egina. Bildotsak ere ibili dira soroetan fantasia ederrean saltoka. Komeni da eguraldi ona aprobetxatzea daramakigun negua ikusi eta gero.

Esaerak dioenez, urriko ilberrian zurituz gero, ondoko zazpi ilberrietan zuritzen omen du, eta martxoko ilberria ere gainean dugu. Erne orain-dik; udaberrian ere badaki gogotik elurra egiten!

Badator Korrika 16

Aurten, Saldiastik pasatuko ez bada ere, izanen du herritarren laguntza Korrikak.

Orain bi urte bezala, hartua dute beren kilometroa. Eta euskararen alde egin nahi duenak xuhurkeriak utzi eta eskua luzatu. Interesa izanez gero, Enekori esan behar zaio.

Ibilbideko 475. kilometroa hartu da, hilaren 28an, larunbata, Korrika Leitzatik pasatuko denean. Hitzordua 16:30ean izanen da.

Sagardotegira ateraldia

Apirilaren 4an, Gipuzkoa aldeko sagardotegi batera joateko asmoa dute eratsundarrek eta saldiastarrek. Horretarako, autobusa paratuko dute etxe ataritik bertatik joan-etorria egiteko. Etorri nahi izanez gero, beharrezkoa da hilaren 22a, igandea, baino lehen apuntatzea. Arduradunak: Saldiasen, Iban eta, Eratsunen, Mikel. Eman izena lehen baino lehen, bestela, egon hadi lo eta jango dek mehe!

HERIOTZA

Josu GOLDARAZ

65 urterekin hil da

Josu Goldaraz Lizaso, Doneztebe, Elgorriaga eta Narbarteko apeza martxoaren 12an hil zen, 65 urte zituela. 1943an Iraizozen sortua, apeztu eta gero Arizkunen hasi zen lanean eta Burlata, Lizarra eta Olaguen ibili ondotik, Doneztebe, Elgorriaga eta Narbarteko parrokietako arduradun izan zen. Euskalzalea eta langilea zen, Herria 2000 Eliza Elkarteko kidea eta Jimeno Jurio buru zela, Nafarroako Toponimia Batzordean laguntzaile izan zen.

LANA

Kasik mila pertsonek emana dute izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan

Sektoreka begiratuz, 531 zerbitzuen arloan, 275 industrian eta 110 eraikuntzan

ttipi-ttapa

Oraindik ere goitiko joera du langabeziak. Langabeziaren igoera apaldu egin da otsailean **Ttipi-Ttapa**k hartzen duen eremuan baina goiti eta goiti doa. Zehazki 991 langabek eman zuten izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan otsailean, ilbeltzean baino 16 gehiagok. Beraz, %1,64ko igoera izan zuen langabeziak otsailean, Nafarroako bulego guzien artean ttikiena. Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez 192 kontratu bakarrik egin ziren otsailean, eta horietatik 32 bertzerik ez ziren izan mugagabeak izan.

Industrian eta eraikuntzan goiti

Lan arloei dagokienez, industrian eta eraikuntzan goiti egin zuen langabeziak eta bertze arloetan, gutti bada ere, beheiti. Denen artean, zerbitzuen arloak dauka, diferentziarekin langabe gehien (531, urtarrilean baino bat guttiago); industrian 275 langabe zeuden, ilbeltzean baino 6 gehiago; eraikuntzan 110 ziren otsailean, aitzineko hilabetean baino 14 gehiago. Nekazaritzan, aldiz, beheiti egin zuen. Ilbeltzean 20 langabe ziren eta otsailean 18. Aitzinetik lanik topatu ez zutenak 57 ziren otsailean, urtarrilean baino 1 guttiago..

Hego Euskal Herrian, berriz, 6.564 lagunetan hazi zen langabezia azken hilabetean, eta Nafarroaren kasuan %2,6 egin zuten goiti datuek: 1.004 gehiago gelditu ziren lanik gabe.

Adina eta sexuari dagokionez, tarte guzietan goiti egin zuen langabeziak otsailean, 25 urtez beheitiko gizonezkoetan izan ezik. Ilbeltzean baino bi guttiago zenbatu ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoan.

EREa Elkar enpresan

Berako Talleres Mecanicos Elkar enpresan ere EREa aurkeztu dute. Otsailaren 17an jakinarazi zien enpresak langileen ordezkariei, eta orain erabakia Nafarroako Gobernuaren esku dago. ERE horrekin 11 langile kaleratuak izanen ziren, hasieran 14 botako zituztela iragarri arren. Gaur egun, 25 langile ditu enpresak baina 2008ko urria arte 34 izan zituen. Geroztik, plantilaren %70 bota duela salatu dute ELA eta LAB sindikatutik. Lantegi honetan, lan mekanikoak egiten dira enpresa batzuetako mantenimenduarekin. Zehazki, mantenimendu lanak gehien bat Lesakako Arcelor lantegian egiten da eta lantegi hau da azken urteetan lan eta diruiturri nagusia enpresarentzat.

Elkar enpresaren arabera, Arcelorren lana jautsi dela-eta hartu behar dute neurri hau. Baina Enpresa Batzordea osatzen duten ELAko bi ordezkariek eta LABeko bakarrak ezetz erran diote EREari *«erabat neurrigabea»* dela iritzita. Enpresak egiten dituen kontuak zalantzan paratu dituzte, *«diotena baino lan gehiago dagoela eta egonen dela pentsatzen dugulako»*.

Martxoaren 2an greba hasi zuten langileek enpresarekin adostasunik ez zutelako lortu, baina gerora bertan behera gelditu zen.

Argazkia: Ttipi-Ttapa

Hildako bat eta lau zauritu N-121An lanean ari zirela

27 urteko langile bat hil eta bertze lau zauritu ziren Etxalarren martxoaren 3an, N-121-Ako lanetan. Zubi baten habearen sendotasuna egiaztatzen ari zirela gertatu zen ezbeharra. Hildakoa Gruas Usabiaga garabi enpresako nagusiaren semea zen. Istripua arratsaldean gertatu zen, Bidasoa ibaiaren gainean eraikitzekoa den laugarren zubian. Garabiarekin, hormigoizko habea paratua zuten eta lana ongi egin ote zuten egiaztatzen ari zirela erori zen habea, eta harekin batera bortz langileak. Bertzalde, Nafarroako Gobernuko ordezkariek otsailaren 20an obretara egindako bisitan N-121A errepideko lanak *«ekainerako bukatuko direla»* berretsi zuten.

EUROPA - MAILA

LANBIDE HEZIKETAN

TEKNOLOGIA – BERRIKUNTZA
NAZIOARTEKO PROIEKZIOA
ENPRESARI EGOKITUA
LANA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA



AURREINSKRIPZIOA EGITEKO EGUNAK
ERDI MAILA ETA GOI MAILA
MARTXOAREN 23TIK 30ERA

2012 ZUREKIN BAGOAZ AURRERA

Nafarroako Gobernua

BERTIZ

Begoña Durrutik irabazi du Bertizko Partzuergoak antolatutako marrazki lehiaketa

13 lanen artean berea erabaki du bortz laguneko epaimahaiak

ttipi-ttapa

Begoña Durruti margolari baztandarra izanen da Bertizko Partzuergo Turistikoaren proiektu berri baterako irudia diseinatu duena.

Martxoaren 12an jakinarazi zuen Partzuergoak marrazki lehiaketako irabazlearen izena. Bortz laguneko epaimahaiak, halere, aitzineko egunean hartu zuen erabakia. Martin Garde Partzuergoko lehendakariak, Andres Etxenike lehendakariordeak, Itziar Aleman Hiruak Bat landa-etxeen Elkarteko ordezkariak, Ana Mari Marin margolariak eta Izaskun Goñi Partzuergoko kudeatzaileak osatu zuten epaimahaia.

Lehiaketaren helburua marrazkilari bat aukeratzea zen, Partzuergoak egin behar duen proiektu batentzat. 13 partehartzaileren artean hautatu behar izan zuen epaimahaiak. Parte-hartzaileen maila haundia azpimarratu dute antolatzaileek, bat izan ezik denak profesionalak izan direlako, Arte Ederretan lizenziatuak.

UTZITAKO ARGAZKIA

13 lagunek aurkeztu zituzten euren marrazkiak lehiaketara.

Sevatur azokan

Eskualdeko turismoa hemendik kanpo zabaltzen segitzen du Bertizko Partzuergoak eta hala, joan den asteburuan Donostiako Sevatur Turismo azokan parte hartu zuen. Aurtengo postua gasna produkzioarekin lotu zuen eta Bertizarana eta Baztango gasna dastatzeko aukera eskaini zuen.laz laxoa eta joaldunen inguruan aritu ziren.

Dena den, postua osatzeko eskualdeko eskulanak ere paratu zituzten ikusgai eta salgai.

Hitzarmena 'Nafarroako Ibilbideak' Elkartearekin

Partzuergotik jakinarazi dutenez, hitzarmen bat sinatu dute Nafarroako Ibilbideak elkartearekin. Elkarte honek Nafarroako ibilbideen informazioa eskaintzen duen atari bat du eta sinatu berri den akordio horren bitartez, bi aldeen web orriak hartuemanean egonen dira.

LAGUNTZAK ETA SUBENTZIOAK

Laguntza eta subentzioei buruzko informazioa astero eguneratua **www.ttipi.net** eta **Ttipi-Ttapa telebista**n ere aurkituko duzu

2009an Nafarroako udalei dirulaguntzak emateko deialdia onesten duen Ebazpena, autobus geralekuetan markesinak eraiki eta instalatzeko inbertsioak zati batean finantzatzeko.
Non argitaratua: NAO 28zk. 2009/03/06
73/2009 EBAZPENA, otsailaren 23koa, Garraioko zuzendari nagusiak emana.
http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2009/28/Anuncio-16/

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko Berdintasunerako Institutuak toki entitateei 2009an laguntzak emateko deia onesten duen Agindua.
Non argitaratua: NAO 28zk. 2009/03/06
23/2009 FORU AGINDUA, otsailaren 3koa, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak emana.
http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2009/28/Anuncio-15/

Sindikatuendako eta enpresaburuen elkarteendako, eta Nafarroako Foru Komunitatean 2009an lan osasuneko proiektu eta programak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko bestelako erakunde eta elkarteendako diru-laguntzak emateko deialdia onetsi eta diru-laguntza horiek emateko gastua baimentzen duen Ebazpena.
Non argitaratua: NAO 26zk. 2009/03/02
15/2009 EBAZPENA, otsailaren 12koa, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana.
http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2009/26/Anuncio-9/

Funts publikoak jasotzen dituzten Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan 2009-2010ean haurrak onartzeko prozedura arautzen duen Ebazpena.
Non argitaratua: NAO 28zk. 2009/03/06
21/2009 EBAZPENA, otsailaren 2koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana.
http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2009/28/Anuncio-1/

Informazioa hau Cederna-Garalur Elkartearen Europe Direct Europari buruzko informazio zerbitzuak emana da.
Kontsultatu www.cederna.es webgunea, "laguntzak eta subentzioak" atalean

LEITZA

Cederna Garalurrek bultzatuta, Alde Zaharra berpizteko azterketa egin da

Hainbat proposamen egin dira

Asier IMAZ

Herrietako Alde Zaharrak berpizteko asmoz, Leader+ programaren baitan, Cederna-Garalur Elkarteak hainbat herritako azterketak bideratu ditu, eta horien artean, Leitzako Alde Zaharrekoa. Besteak beste, herriaren baliabideak, ondarea, ohiturak, ingurumena, mugikortasuna eta egoera sozioekonomikoa aztertu dira eta hortik abiatuta, hainbat proposamen egin dira.

Arlo bakoitzean planeamendu diferenteak egin dira. Hirigintzan, esaterako, araudi zehatzen beharra ikusi da. Turismoari begira, hala nola, haratego zaharrean Turismo Bulegoa egin eta Alde Zaharrean barna ibilbide gidatu bat prestatzea proposatu dira. Herria hemendik kanpo zabaltze aldera, berriz, web orri osatu bat egitea planteatu da.

Aipatu ikerketa Axura enpresako Isabel Elizaldek egin du.

1957koen kinto afaria hilaren 28an

Kintoen afaria egingo dute 1957an jaiotako herritarrek hilaren 28an, larunbatean, Musunzar jatetxean. Antolatzaileek urte horretakoei gonbitea luzatu diete, alde batetik anima daitezen eta bestetik hilaren 25a baino lehen jatetxean euren izena eman dezaten.

Korrikako produktuak eta bideo emanaldia

Korrika 16 hilaren 26an abiatuko baldin bada ere, Leitzan jadanik lanean ari dira: kilometroen salmentak, korrika laguntzaileak, batzarrak... Horrez gain, Korrika 16 ekimenaren inguruko produktuak jarri dituzte salgai. Orain dik erosi nahi duenak Torrea Tabernan ditu salgai. Hilaren 26an, berriz, Jon Maiaren Korrikari buruzko dokumentala ikusteko aukera izango da Peritza tabernan, 19:30ean.

Josetxo Urrutia Etxauriko Harriarekin

Josetxo Urrutia Etxauriko harriarekin saiatuko da hilaren 29an, igandean, 12:30ean. Urrutiarekin batera Unai Bertiz eta Aimar Irigoien harri-jasotzaileak ariko dira.

Iazko emaitza lortzen saiatuko da Urrutia, nahiz eta aurten Irigoienen presentziak lanak asko zailduko dizkion. Leitzarrak harri baldarrari sei jasoaldi eman zizkion joan den urtean. Duela bi urte, ordea, bederatzi lortu zituen.

ARGAZKIA: ASIER IMAZ

Wazemank eta Noaoako aktoreak herriko plazan

Wazemank **eta** ***Noaoa*** **telebista saioko aktoreak grabaketa lanetan aritu ziren martxoaren 11n herriko plazan. 50 haur leitzar zain zituzten, pilotariz jantzirik, grabaketan parte hartzeko prest. Programa eta denboraldi berria prestatzen ari omen dira Anjel Alkain eta bereak. Leitzan amaierako bideoaren zati bat aritu ziren grabatzen. Dena oso laburra izan zen, hamar segundo eskas grabatu behar zituztelako. Euskal Herriko herri ezberdinetan ari omen dira lanean. Leitzako neska-mutikoak, beraz, denboraldi berriko programa amaierara arte ikusi beharko dute, eurek izango baitira protagonista saioaren bukaerako bideoan.**

ARGAZKIA: ASIER IMAZ

Emakumeen Nazioarteko Egunean hainbat ekitaldi

Bilgune Feministak egitarau zabala antolatu zuen Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan, Ikasle Abertzaleak, Gazte Asanblada, Kultur Elkartea eta Torrearen laguntzarekin. Arantxa Agirreurretaren ***Simone de Beauvoir, emakume libre baten istorioa*** **liburuaren aurkezpena,** ***4 meses, 3 semanas y dos dias*** **filmea, parekidetasunaren aldeko bazkaria eta manifestazioa izan ziren, besteak beste, martxoaren 6tik 8ra bitarteko ekitaldiak.**

ARESO

Guraso Elkartearen ekimenez Zuhaitzaren Eguna egin dute beste urte batez haurrek

Urteaga aldean Udalak jarritako gaztainondoak eta haritzak landatu dituzte

Juana Mari SAIZAR

Guraso Elkarteak Udalaren laguntzarekin, Zuhaitzaren Eguna antolatu zuen martxoaren 11n.

Asteazken arratsaldean, eskolarik ez zutela aprobetxatuz, Urteaga parajean Udalak prestatutako eremuan, gaztainondoak eta haritzak landatu zituzten neska-mutikoek. Landareak Udalak jarri zituen eta umeek bakoitzak bere aitzurra eta merienda eraman zituen. Edariak, berriz, Guraso Elkarteak jarri zituen.

Ekimen hau ez da berria. Izan ere, azken 85 urte hauetan herriko plazan dauden platanondoak duela 95 urte jaiotako haurrek landatu zituzten. Geroztik, plaza erdi-erdian daude gure aiton-amonek utzi zizkiguten oroigarri bikainak.

ARGAZKIA: ESTITXU AZPIROTZ

Lanean gogotik aritu ondotik, merienda goxoa egiteko ordua ailegatu zen.

Helduek ariketa egin dezaten

Helduek ariketa egiteko ikastaro baten beharra somatzen zelaeta, taldetxo bat elkartu eta Kirol Mankomunitateko koordinatzailearengana jo zuten. Ba horren ondorioz, badirudi laister hasiko direla helduentzako ikastaroak. Astean behin izanen dira, asteazkenetan 17:00etatik aurrera. Ordu bat eta erdiko saioak izanen dira.

Onsalok beste garaipen bat

Aurten ere, iaz bezalaxe, Unai Onsalo pilotari gazteak txapela eskuratu du Euskal Herriko Kluben arteko Ohorezko Mailan. Martxoaren 8an Zumarragan jokatu zen eskuz banakako finala eta Uriarteren kontra 22 eta 21 irabazi zuen. Lana gogor egitea tokatu zitzaion.

ARANO

San Roke elkarteko urteko bilerara agertu ez diren bazkideei 30 euroko isuna kobratuko zaie

64 bazkideetatik 40 bildu ziren

Kontxi KLABER

Besteetan bezalaxe larunbatarekin egin zuten urteko bilera San Roke elkarteko bazkideek. Otsailaren 28an 64 bazkideetatik 40 elkartu ziren. Abisurik eman gabe, azaldu ez zirenei 30 euroko isuna kobratuko diete urteko kuotarekin batera. 2008ko aktaren onarpena eta balantzea onartu, 2009ko kuotak zehaztu eta zuzendaritza izan ziren bileran aztertutako puntuak. Zuzendaritza berritzeko bo-

ARGAZKIA: KONTXI KLABER

Elkarteko bazkideak otsailaren 28an bilera egin zenean.

luntarioak eskatu zituzten baina inor aurkeztu ez zenez, lehengoek jarraituko dute. Bileraren ondotik, jende dezente animatu zen afaltzera.

Ibilgailuen zerga hilaren 26a arte

Ibilgailuen zerga ordaintzeko borondatezko epea otsailaren 19tik martxoaren 26ra bitarte izanen da helbideratu gabea daukaten guztientzat.

Helbideratua daukatenei, epearen azken egunean kobratuko zaie.

GOIZUETA

‘Agur eta ohore 1512an Nafarroaren independentzia defendatu zutenei’

Aho batez onartu du Udalak orain dela bost mendeko konkista hura salatzen duen mozioa

Esteban AROTZENA

Orain dela 500 urte Nafarroako estatuaren independentzia defendatu zutenei agur eta ohore egiten dien mozioa onartu du Udalak.

1512an hartu zuten Nafarroa Gaztelako erregearen tropek, azken bataila Amaiurren egin zenean. Bosgarren mendea betetzear dagoen honetan, hainbat ekimen antolatu dituzte Nafarroako independentistek konkista hura salatuz. UPNko Gobernuak, berriz, bestelako ekitaldiak prestatu ditu historiari buelta emanez. Hauek diotenez, Nafarroa eta Espainiaren artekoa *«anexio librea»* izan zen, Lizarran, Burgin, Noainen, Amaiurren eta beste hainbat borrokatan hildako milaka nafar ahaztuz. Herriko ordezkariek lehenengoekin egin dute bat, mozioa aho batez onartuz.

Emakumeen Eguna

Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunak merezi bezalako ospakizuna izan du aurten ere herrian. 60 emakume elkartu ziren Umore Onan, puntako bi sukaldarik (gizonezkoak) prestatutako bazkariak ederki hornitutako mahaiaren bueltan.

Nafarroa Oinezi laguntza

Urriaren 18an Etxarri Aranatzen ospatuko den Nafarroa Oinezek 225 euroko dirulaguntza jasoko du Herriko Etxetik, plenoan aho batez hartutako akordioari esker.

UTZITAKO ARGAZKIAK

‘Udala informatzen’ eta ‘Goizueta astintzen’ kalean

Hainbat erakunde eta taldek aldizkariak egitea ohikoa da herrian zorionez. Bik orain berriro ikusi dute argia. Batek, Udalarenak, azken urtean burututako zenbait lan eta gestioren berri ematen du, ondorengo hilabeteetako beste hainbeste egitasmorekin batera. Besteak, gazte independentistenak, Goizueta eta Euskal Herriko gai asko aztertzen ditu urteko lehen alean.

ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Malerrekako Pilota Txapelketan hiru txapel

Malerrekako Eskuz Binakako Pilota Txapelketatik hiru txapel etorri dira herrira. Finalean, benjaminen lehen mailan, Antton Apezetxea eta Iker Salaberriak 18 eta 12 irabazi zieten Azpeitiko Balerdi eta Alberdiri. Aipatu, Iker Salaberria banaka txapeldun izan zela alebinetan, bigarren B mailan. Seniorretako bigarren mailan, berriz, Oier Apezetxeak txapela jantzi zuen, Berastegiko Zubiri lagun zuela, Kortabarria eta Baleztenari 22 eta 11 irabazita.

COLCHONES ATSEDEN
KOLTXOI FABRIKA
ESTREINALDI PLANA ZURE AMETSEN FABRIKAN
Aukera ezazu Atseden estreinaldi plana edo ...
BASIC PLANA: Koltxoia + burukoa: jaso zure oparia
MEDIUM PLANA: Koltxoia + somierra + burukoa: %5eko deskontua
PLATINUM PLANA: Koltxoia + kanape toleskorra edo ohatze artikulatua + burukoa: %10eko deskontua
GOLD PLANA: Viscolaxtic Koltxoia + kanape toleskorra edo ohe artikulatua + viscolaxtic burukoa + edredoi nordikoa + funda nordikoa: %15eko deskontua
Eta hau guztia gure betiko prezioetan, lantegiko prezioetan
12 hilabete arte interesik gabe ...finantzaketa bikaina
www.colchonesatseden.com
Aprobetxatu promozioa, 2009/03/31 arte
Iruña-Huesca errep. • 948 346 000 • TORRES DE ELORZ • Bidatakondoa kalea • 948 346 006 • BURLATA • Irunlarrea, 11 • 948 346 066 MENDEBALDEA

KULTURA

Nafarroari eskainitako kantaldia eginen da apirilaren 19an Elizondon

Eskualdeko zazpi bakarlari edo taldek parte hartuko dute

ttipi-ttapa

1978an egin zen lehenbiziko aldiz Nafarroaren Egunа, *«mugen gainetik Nafarroako lurralde osoa bateratzeko eta bereziki nafar guziak elkarri lotzen gaituen hizkuntzaren bitartez: euskara»*. Egun horren 30. urteurrena joan den urtean gogoratu zen. Aurten, ordea, 30 urte igaro dira Baigorriko Basaizea elkartea sortu zenetik eta horren harira, urtero Baigorriko Gaiteroak elkartearekin elkarlanean antolatzen duen Baigorriko Kulturaldia berezia izanen da aurten. Hasteko apirilaren 4an *Idoki Merkatia* eta afaria eginen dira Baigorrin.

KANTALDIA

Apirilaren 19an Nafarroari eskainitako kantaldia eginen da Elizondoko Lur dantzalekuan. 17:00etan hasita, Nafarroa osoko 30 bat kantari eta taldek parte hartuko dute: Aire Ahizpak, Amaia Riouspeyrous, Astezkenekoak, Arno Bordagaray eta Peio Erramouspe, Bankarrak, Guy Zaldubehere, Tafallako Kantu Taldea, **Petti (Bera)**, Erramun Martikorena, **Ainara eta Arkaitz Mindegia (Aurtitz)**, Marta Moreno, Enaut Etxamendi, Jean Lous Laka, **Estitxu Pinatxo (Bera)**, Joana Etxarren, **Jaione Olazabal (Areso)**, Orbaizetako Ahotsak, Maitena Monako, **Talde Basa (Amaiur)**, Kantiruki, Pello Zabalza, Nerea Urbizu, Xendarineko Ahizpak, Fermin Valencia, Iparla Taldea, **Ansa Ahizpak (Arano)**, **Eratsungo Taldea (Eratsun)**, Magali Zubillaga eta Kattalin Indaburu.

Txartelak salgai daude dagoeneko eta lehenagotik erosita merkeagoa da. Martxoan sarrerak 10 euro kostako dira eta apirilean 13. Elizondoko Fantxike dendan, Iruñeko Karrikiri Elkartean, Baionako Elkar megadendan, Baigorriko Bixentainian eta Garaziko Irulegi Irratian daude salgai.

Betiko doinuen haritik izenburupean bertze musikaldi bat eginen da apirilaren 25ean Baigorriko Elizan. Horrez gain, apirilean bertze hainbat kultur ekitaldi izanen dira.

SILOTITE

LAYER BLOWN 5 high Speed

5 KAPAKO ZINTA

ENSILATZEKO HOBERENA

- Erabilera unibertsala
- Kolaztatze bikaina
- Elastizitate hobea
- Memoria elastiko bikaina
- Tiratzeko erresistentzia bikaina
- Zulatzeko zaila
- Kolorearen homogeneitate ona duten kapa bereizgarriei esker

Orain produktu berriak: SILOTITE Pro BALETITE

AROZ-BERRI S.A

Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - Fax. 948 452 103
N 121 B km 46,7 errepidea - 31730 IRURITA (Nafarroa)
e-Posta: irurita@arozberri.com

BAZTAN

Saihesbideko obrak 13 milioi euroren truke kontratatzea baimendu du Gobernuak

Eraikiko den errepide berriak 5,8 kilometro izanen ditu

ttipi-ttapa

Irurita-Elizondo parean egitekoa den saihesbide lanak egiteko baimena eman du Nafarroako Gobernuak. Proiektu honen helburua gaur egun Elizondoko zeharbidetik igarotzen den trafikoa saihestea da eta obren lizitazio-aurrekontua 13.029.078,02 eurokoa da. Halaxe jakinarazi zuen Gobernuak martxoaren 2an Lekarozera egin zuen bilkuran.

ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Gaur egungo errepidea eta proposatutakoa, eskala ttikiago batean.

5,8 KILOMETROKO BIDEA

Iruritaren eta Elizondoren iparraldetik barrena eginen da errepide berria, eta 5.800 metro izanen ditu guztira. Trazatuaren hasieran, hau da, Arraiozko saihesbidearen akaberan, biribilgune bat eraikiko da. Segidan, Iruritako errekа gurutzatu eta Oharrizen dagoen arrain-haztegiari eragin gabe, NA-4405 gainetik gurutzatuko du. Errepide horrek gaur egungo N-121-B Oharrizekin lotzen du.

Trazatuak trenbide zaharraren plataforma aprobetxatuko du. Baztan ibaira iristean, bidezubi baten bidez zeharkatuko du, eta hortik iparraldera eginen du, eta NA-4405 eta NA-4403 berriro zeharkatuko ditu; azken hori zeharkatzeko biribilgune bat eraikiko da.

Bordatxuri muinoa zeharkatu ondotik, Elizondon sartzeko biribilgune bat aurreikusi da. Biribilgune horretatik aitzinera planeamenduan ezarritako gainerako bideak abiatuko dira.

Saihesbideak Elizondoko eta Elbeteko herriguneak iparraldetik inguratuko ditu, azken herri horretako hilerria gaindituz, Elbeten sartzeko biribilgunea eginen da, eta saihesbidea N-121-B errepidearekin lotzen duen biribilgune batean akituko da.

EZAUGARRIAK

Errepide bideak 7 metroko galtzada, 3,5 metroko bi errail, metro eta erdiko bazterbideak eta metro erdiko bermak izanen ditu. Bertzalde, biribilguneek 8 metroko zabalerako eraztun-itxurako galtzada, metro eta erdiko kanpoko bazterbideak eta metro bateko barreneko bazterbideak dituzte, eta horien kanpoan 0,50 metroko berma kokatuko da.

Guztira, proiektuan 6 biribilgune, 4 bidezubi eta errepidearen azpitik 4 pasabide eraikitzea aurreikusi da.

Obra hau Nafarroako Gobernuaren eta SPRIN sozietate publikoaren arteko lankidetza-hitzarmenean garatutako Errepideak Azeleratzeko Planean bilduta dago, eta gainera, Nafarroa 2012 Planaren barruan sartuta dago, egungo krisi-egoera gainditu eta Nafarroa lehiakortasunaren eta gizarte- aurrerapenen agertokian kokatzeko.

Golf zelaia Lekarozen?

Lekarozen golf zelaia egiteko asmoa dagoela zabaldu den arren, Virginia Aleman alkateak **Ttipi-Ttapa**ri adierazi dionez, *«ofizialki ez dago deus ere, ez da proiekturik sartu»*. Duela hiru urte golf zelaia egiteko interesa azaldu zuen enpresa berak berriz egin du proposamena, baina horren inguruan momentuz, *«enpresarekin informazio bilerak bakarrik egin dira»*. Bere garaian Udalak ezezkoa eman zion proiektuari.



BAZTAN

Oronozko larrialdi zerbitzua berriz jartzea eskatzeko kanpaina abian da

Posta elektroniko eta arruntaren bidez Arartekoan aurkez daiteke kexa

Maite OTEIZA

Osasunbideak iragarri bezala, martxoaren 1etik Oronoz-Mugairiko kontsultategian zegoen larrialdietarako puntua desagertua dago. Honek baztandarren haserrea bertzerik ez du sortu.

Herrietako alkateen lehenengo ekimena, prentsaurrekoa izan zen, eta Batzar Nagusiaren bilkura berezia etorri zen gero. Orain, herriz herri, bertze aukera dago: baztandar guztiek bere kexa aurkez dezakete Nafarroako Arartekoaren aitzinean, posta elektroniko edo arruntaren bidez.

Oharrarekin batera, erabil daitekeen gutun eredua ageri da: *«Osasunbideak gaueko 10etatik aitzinera Oronozko mediku-erizain lantaldea ezabatzeko erabakia hartu du. Bidegabea izateaz gain, ausarkeria galanta iruditzen zaigu. Hau delaeta zuregana jotzen dugu arazo honen aitzinean esku har dezazun»*. Horrekin batera, beharrezkoa da hau jartzea: izena, bi abizen, helbidea, posta kodea, herria, telefonoa, kexaren arrazoi argi eta zehatzak. Ondotik, helbide hauetara bidali behar da. Posta arrunta bada: *Nafarroako Arartekoa, Arrieta karrika 12, 31002, Iruña*. Posta elektroniko bidez, berriz: *info@defensornavarra.com* helbidera.

Agian oroitarazi behar da, Baztanek 375 kilometro koadro, 8.000 biztanle inguru, 15 herri eta hainbertze eta hainbertze auzo eta baserri sakabanaturik dituela; Norbaitek bizia galtzean, 40 kilometroko tartean aldi berean bi larrialdi izatean eta bertze hainbat kasutan, agian Osasunbidea orduan ohartuko da baztandarrok eskatzen duguna, ez dela luxuzko kapritxo bat, oinarrizko zerbitzu bat baizik.

ARGAZKIA: ONDIKOL

Haur Eskola martxan

Lanak gibeleratuak ibili diren arren, dagoeneko zabalik dago Haur Eskola berria. Martxoaren 2an ireki zituen ateak Erabeta eta Merkatuzelai inguruan egin duten 920 metro koadroko eraikin berriak. 0-3 urteko haurrak hartuko ditu eta guztira 85 haurrentzentzako tokia izanen du. Lanak egitea 1.132.718,05 euro kosta da.

FLASH

Baztandarren Biltzarrerako kartel lehiaketa

Uztailaren 19ko Baztandarren Biltzarra iragarriko duen kartela aukeratzeko lehiaketa zabalik dago, eta parte hartu nahi dutenentzako oinarriak ere jakinarazi dituzte: Kartel guztiek *Baztandarren Biltzarra 09. Elizondon uztailaren 19an. Eskuarak batzen gaitu* testua eduki beharko dute, eta 50x70 zentimetroko neurria. Lehiaketara aurkezteko azken eguna apirilaren 16ko 12:00etan akituko da. Kartelak bi modutan aurkez daitezke: *Baztandarren Biltzarra Elkartea, 22, 31.700 Elizondo* helbidera bidaliz edo Arizkunenea Kultur Etxean utziz, bulego orduetan. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du.

Foru Poliziaren komisaria haundiagoa

Nafarroako Gobernuak Elizondon Foru Poliziaren komisaria berria eraikitzeko lanak hasi ditu. Egitasmoa Nafarroa 2012 Planean dago jasoa, eta milioi bat euro jarriko dira, aurten eta datorren urtean, proiektua garatzeko. Elizondoko polizia-etxea sortzeko erabakia 2006ko abenduan hartu zen. Geroztik, Santiago Karrikan egon da. Orain, instalazio haundiagoak izanen ditu. Baztanberri plazan eginen da, ia 893 metro koadro dituen lursail batean, eta han egonen dira bulegoak, ibilgailuak eta gainerako bitartekoak. Eraikina egiteko gastuak Gobernuak hartuko ditu bere gain, baita ekipamenduaren eta urteko funtzionamenduaren gastuak ere. Gobernuak 600.000 euro jarriko ditu 2009an eta 400.000 euro 2010ean.

BAZTAN

Berroetako III. Asteburu Kulturala eginen da ortziraletik igandera

Gure Ametsa Elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu

ttipi-ttapa

Berroetako Gure Ametsa Elkarteak antolatuta asteburu honetan III. Asteburu Kulturala eginen da.

Martxoak 20, ortzileria

16:30ean Osio *ipuin kontalaria*.
17:30ean *txokolatada*.
18:30ean *Kontsumo arduratsua* tailerra Karlos Garaikoetxearen eskutik.
19:30ean 16 urtetik beheitikoendako *mus txapelketa*. Txapeldunendako Osasuna ikusteko sarrerak.
20:30ean gaztetxoendako *afaria*.

Martxoak 21, larunbata

10:00etan *arbolak txertatzea* ikastaroa, Txipeneko baratzean, Iosu Osarekin. Tartean gosaria.
16:00etan helduentzako *mus txapelketa*. Sariak: bi afari Beolan eta Jauregia esnekien produktuak.
16:00etan helduentzako *partxis txapelketa*. Sariak: bi zerbitzu oso Jaimerena ileapaindegian.
21:00etan *txiste eta kantu afaria*..

Martxoak 22, igandea

11:00etan Nafarroako *Herri Kirol Jolas*etako 4. jardunaldia
14:00etan *bazkaria*.
17:00etan *Tuku-keta txapelketa*. Sariak: Jauregia esnekien produktuak eta BKZren kirol jarduerak.
18:30ean *sari banaketa* eta Osasunako materialaren *zozketa*.

Badator Korrika

Martxoaren 30ean, Korrika 16 Baztanerat ailegatuko zaigu. Oronoz-Mugairin 16:32an sartuko da; Arraiozen 16:52an; Iruritan 17:11n; Gartzainen 17:24n; Elizondon 17:30ean; Iruritan 17:55ean; Zigan 18:22an; Anizen 18:41ean; Berroetan 18:54an eta Almandozen 19:07an.

UTZITAKO ARGAZKIA

3.000 lagunetik goiti Stock Ferian

Bertan Merkatarien Elkarteko Zuzendaritzak *«arras balorazio ona»* egin du martxoaren 7an eta 8an egindako Stock Feriaren inguruan. 19 postu paratu ziren eta Baztango zein inguruko jende andana hurbildu zen, 3.000 lagunetik goiti. Berrikuntza gisa, aurten Internet dohainik ibiltzeko bi ordengailu paratu ziren, eta gaztetxoentzako puxikak, margoak eta goxokiek ere bai.

UTZITAKO ARGAZKIA

Elizondotik Salzburgoko Enpresa Simulatuen Feriara

Elizondoko BHIko Administrazio eta Finantzetako Goi Heziketako Zikloko ikasleek Salzburgoko (Austria) Enpresa Simulatuen Nazioarteko Ferian parte hartu dute aurten. Ana Arruabarrena (Amaiur), Maite Iriarte (Narbarte), Miriam Salaberri (Elizondo) eta Arantxa Urkaregi (Elgorriaga) ikasleak martxoaren 9an Salzburgon izan ziren Maite Ariztegi irakaslearekin batera. Topaketa honen helburua bikoitza izan da. Batetik, atzerrian merkatal jarduera simulatu bat nola antolatzen den ezagutzea eta bertzetik, Europako bertze ikastetxeekin esperientzia konpartitzea. Aipatu ikasle hauek iaz Bartzelonako Enpresa Simulatuen Ferian izan ziren.

I.E.S. LEKAROZ ELIZONDO B.H.I.

Bigarren Hezkuntza Institutua

Lekaroz
Uharte auzoa z/g
31795 Lekaro (Baztan)

Tel. 948 581 803
Fax. 948 581 836

ieslekar@pnte.cfnavarra.es
www.pnte.cfnavarra.es/ieslecar

Elizondo
Diputazio etorbidea z/g
31795 Lekaro (Baztan)

Tel. 948 581 803
Fax. 948 581 836

ieselizo@pnte.cfnavarra.es
www.pnte.cfnavarra.es/ieselizo

IZEN EMATEA

DBH eta Batxillergoa: martxoaren 23tik 30ra
Erdi Mailako Lanbide Heziketa: martxoaren 23tik 30ra
Goi Mailako Lanbide Heziketa: martxoaren 23tik 30ra
Lanbide Hastapena: ekainaren 9tik 25ra

Oharra: Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitez gurekin kontaktuan

ESKUALDEKO ESKAINTZA PUBLIKOA

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra

SARA

Korrika 16 herritik pasako da astelehen honetan zortzi

Eguerdian San Inazio Lepoan barna sartuko da herrira eta Lizuniaga aldera joanen da gero

Xan HARRIAGUE

Martxoaren 30ean, astelehen goizarekin arribatuko da gurera 16. Korrika. Heldu den ortzegunean abiatuko da Tuteratik, Nafarroa hegoaldetik, eta apirilaren 4an finituko Gasteizen, Araban. Euskal Herriko hainbat herritan barna 2.492 kilometro eginen ditu, eta horietariko dozena erdi bat Saran izanen dira.

Eguerdian, 11:45 aldera etorriko da San Inazio Lepotik, eta plazatik pasatu eta gero, Bera aldera eginen du Lizuniagatik. Jadanik herriko hainbat elkartek kilometroak erosi dituzte jende helduen euskalduntzea laguntzeko.

Sara Korrika Trail

Jadanik gainean dugu aurtengo denboraldiko lehen lasterketa nagusia. Laugarren urtez segidan Sara Korrika elkarteak antolatu duen 25 kilometroko lasterketa heldu den igandean zortzi izanen da, martxoaren 29an. 9:00etan hasiko da plazatik eta han berean finituko, Larrungo mazeletan ibili eta gero. Ibilbidean barna lasterkariak Atekaleunera upatuko dira, hortik Gondendiagaraino jautsiko, eta ondotik kasik joandako bidetik itzuliko. Antolatzaileak 350 bat lasterkari espero dituzte. Iaz Fernando Etxegarai beratarrak irabazi zuen errekor berriarekin (1:58). Lehen emaztea Oihana Ozkarbebeitia izan zen bi oren eta hogeita hamabi minuturekin.

Presoen aldeko afaria

Gaztetxeak presoen aldekoa afaria antolatu du martxoaren 28rako. Omordian izanen da usaian bezala. 20 eurorekin aperitifa izanen da bertsolariekin, ondotik afaria eta finitzeko kontzertua Xutik taldearekin. Txartelak erosten ahal dira Herriko Etxeko Edantegian eta Pleka Trinketean, baina baita Azkainen Xoko Onan, Beran Katakun edo Kanbon Diur Optikan ere. Gauean aterako diren etekinak Askatasuna elkarteari emanen zaizkio, euskal presoak kartzeletan dituzten bizi baldintza txarrak hobetzeko, eta familiarrei laguntzeko, urrun diren bisitak eragiten dituzten gastuetan.

ARGAZKIA: X. HARRIAGUE

Barnetxe eta Pradere txapeldun musean

Frederic Barnetxek eta Jerome Praderek irabazi dute aurtengo Herriko Etxeko Edantegiko Mus Txapelketa. Finalean Christiane eta Xan Leizagoienen kontra nagusitu ziren. Finalen egunean 25 bat lagun bildu ziren zikiroan. Usaian baino jende guttiago elkartu baziren ere, oso giro ona izan omen zuten.

Errugbi taldearen web orria

Sarako Izarra errugbi taldeak web orria ireki du: *sarako.izarra.free.fr* . Taldearen berriak atzemanen dituzue, baina baita bideoak eta lehenagoko argazkiak ere.

SENPERE

Michel Etcheverry kantariak alaitu du amorroin kofradiaren 25. besta

Turismo Bulegoak eta kofradiak elkarlana bultzatuko dute datozen urteetan

Franck DOLOSOR

Senpereko amorroinaren kofradiak haundiki ospatu du bere hogoita bortzgarren urtemuga joan den martxoaren 8an, emazte langilearen egunaren karietarat. Elkarretaratze baten eta mezaren ondotik, Akitania osoko eta Hego Euskal Herriko gonbidatuak Inharrean bildu ziren, Ibarrunen. Andere auzapezak ongi etorria eman zien bildu ziren gastronomiazaleei eta eskertu zuen herriko kofradiak egiten duen lana Senpereko amorroina ezagutarazteko auzo lurraldeetan barna. Gisa hortan, Christine Bessonartek erran du Turismo Bulegoak eta kofradiak elkarlana haundituko dutela. Hemendik goiti, Senpereri buruzko informazioa eta iragarkiak banatuko ditu kofradiak urte osoan egiten dituen bidaien eta bisiten karietarat. Ondoko urteetan, proiektu berriak elgarrekin egitea ez du baztertzen Peio Aincy turismoaz arduratzen den herriko kontseilariak.

Hogoita bortzgarren bestan bildu ziren gonbidatuen izenak aditzean jateko eta edateko gogoa etorri zitzaion bat baino gehiagori...Bidarteko txipiroia, Ezpeletako piperra, Bidasoako izokina, Beasaingo odolkia, Tolosako babarruna, Madiran, Baionako xingarra… denak ekoizpen onak eta aipamen hutsak gosea ematen dutenak! Lehen aldikotz, Kanboko euskal pastizaren kofradiak parte hartu zuen Senpereko biltzarrean.

Akitaniako kofradiak ezagutarazteko liburu bat eta diska bat plazaratu dute Jean-Pierre Aren kazetariak eta David Olaizola kantariak: *Les Chevaliers d'Aquitania*. Obra huni esker, Akitaniako bortz departamentuetako 62 kofradiak ezagutu daitezke, hauen artean Senperekoa. Lan hau berriki agertu dute publikoki Parisko laborantza gelan.

ARGAZKIA: F. DOLOSOR

Michel Etcheverry Heletako kantaria Senpereko amorroinaren kofradiako adiskide berria da. Christian Fourgeau kofradiako buruak ongi etorria eman zion.

ARGAZKIA: EKE

Peio eta Pantxoa larunbatean Elizan

SPUC kirol batasunaren berrogoigarren urtemugaren karietarat, Peio eta Pantxoa kantari ezagunak Elizan entzuten ahalko dira martxoaren 21ean 17:00etan. Peio eta Pantxoa bikoteak ospe haundia du Euskal Herri osoan eta iazko Amotzeko bestetan gaitzeko arrakasta izan zuen. Kantaldiaren ondotik, sagarnotegietako menua duen afaria izanen da Inharrean.

BERTSOLARITZA

Nafarroako txapelaren bila zortzi bertsolari ariko dira lehian larunbat honetan Elizondon

17:00etan dute hitzordua Lur dantzalekuan

ttipi-ttapa

Finalerdi guztiak bukatuta, larunbat honetan jokatuko da Nafarroako Bertsolari Txapelketako final haundia. Orain arteko saioetan jasotako puntuazioaren arabera, zortzi bertsolari hauek ariko dira Elizondoko Lur dantzalekuan jokatuko den saioan: Xabier Silveira (Lesaka, 1975); Julio Soto (Iruñea-Gorriti, 1987); Iñigo Olaetxea (Lesaka, 1975); Erika Lagoma (Lesaka, 1981); Xabier Legarreta (Arano, 1977); Julen Zelaieta (Bera, 1980); Jon Barberena (Elizondo, 1979) eta Ander Fuentes *Ittu-rri* (Zubieta, 1979). Zortzi bertsolari hauen artean, Ander Fuentes izanen da estreinakoz finalean ariko den bakarra. Gainerakoak lehendik ibilitakoak dira. Dena den, aipatzekoa da, Eneko Lazkoz eta Jon Elizetxek ere zubietarraren puntuazio berdina jasoz zutela finalaurrekoetan. Berdinketa hirukoitza izan zen, beraz. Baina ordura artelortutako puntuazioak kontuan hartuz, zubietarrak egin zuen aitzinera.

Xabier Silveira 346,5 puntu lortuta, Julio Soto 334 eskuratuta eta Iñigo Olaetxea 322,5rekin izan dira finalerako sailkatu diren lehenbiziko finalistak, Altsasu, Antsoain eta Goizuetako finalerdietan lehenbiziko postuak lortu ondotik. Gainerako bortzak, berriz, puntuaziorik onena jaso dutenak dira: Erika Lagoma 331 puntu lortuta, Xabier Legarreta 316rekin; Julen Zelaieta 308,5 eskuratuta, Jon Barberena 308 punturekin eta Ander Fuentes 307,5 lortuta.

Lehia estua

Orain arte bezala, aurtengo finalean ere lehia estua espero da, berdintasun haundia baitago zortzien artean. Elizondoko saioan Nafarroako bertsolaririk onena zein den erabakitzeaz gain, aurten jokatuko den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa nagusirako lau txartel jokoan izanen dira. Finala 17:00etan hasiko da.

Xabier Silveira


Julio Soto

Iñigo Olaetxea


Erika Lagoma


Xabier Legarreta


Julen Zelaieta

Jon Barberena


Ander Fuentes

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Saioa Sagaseta Urrotz, Donamariakoa, otsailaren 11n.
Nahia Elizondo Mariezkurrena, Donamariakoa, otsailaren 26an.
Aratz Perez de Arriluzea Aldalur, Gaztelukoa, otsailaren 27an.
Uxue Agirre Caballero, Leitzakoa, otsailaren 28an.
Ainhoa Iriarte Alduntzin, Leitzakoa, martxoaren 4an.
Oihan Telletxea Sein, Igantzikoa, otsailaren 23an.
Ekiñe Bertiz Ariztegi, Sunbillakoa, otsailaren 23an.
Jabier Zabala Sarasola, Doneztebekoa, martxoaren 1ean.
Amaia Berruet, Sarakoa, martxoaren 6an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Silvina Aizpuru Perurena, Goizuetakoa, otsailaren 25ean, 79 urte.
Nestor Osvaldo Cenizo Iribarren, Gartzain-Elizondokoa, otsailaren 27an, 68 urte.
Antonio Muxika Etxebertz, Elizondokoa, otsailaren 26an, 63 urte.
Santiago Inda Arregi, Donamariakoa, martxoaren 2an, 87 urte
Blas Salaberri Bulman, Elizondokoa, martxoaren 2an, 71 urte.
Francisca Azkarate Irisarre, Elizondoka, martxoaren 2an, 63 urte.
Miguel Lizasoain Arantza, Elizondoko, martxoaren 3an, 57 urte.
Sara Etxeberria Arraztoa, Erratzukoa martxoaren 5ean, 74 urte.
Tomas Indabere Larregi, Oronoz-Mugairikoa, martxoaren 6an, 86 urte.
Mª Pilar Cordoba Gortari, Elizondokoa, martxoaren 6an, 66 urte.
Pascuala Lukanbio Leitza, Leitzakoa, martxoaren 10ean, 91 urte.
Ernestine Lassegue, Sarakoa, otsailaren 25ean.
Joset Agerre, Sarakoa, martxoaren 1ean.
Marie Zaharrea, Sarakoa, martxoaren 7an.
Josu Goldaraz Lizaso, Iraizozkoa, martxoaren 12an, 65 urte.

Isabel
HUICI MADARIAGA
Beran, urtarrilaren 14an

Amatxi izaten jakin duzu,
baita ama ezin hobea ere;
familia guztia maitatuz
iloba, alaba nahiz seme.
Banatzeko ordua denean,
begiak zaizkigu malkoz bete,
gure ondoan egon ez arren,
beti gure bihotzean zaude.

ZURE FAMILIA

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guziei, mila esker.

Silvina
AIZPURU PERURENA
(Juan Jose Zugarramurdiren alarguna)
Goizuetakoa, otsailaren 25ean

Hainbeste urtez zu izan zara
gidari eta eredu,
zenbat balore, zenbat aholku!!
beti zintzo ta ondradu.
Joan zinetetik hutsune hori
ezin beterik gaude gu.
Oroimenean bizi-bizirik
beti eukiko zaitugu.

ZURE FAMILIA

UTZITAKO ARGAZKIA

Txus UNSION
Berako korrikalaria

«Lesioak izan ditudanean ere beti lasterketa bukaera arte segitu dut»

• Manttale Mendi Lasterketa Taldean ari da Txus Unsion beratarra. 53 urterekin sasoi betean dago eta ahal duen bitartean mendi lasterketetan segitzeko asmoa du.

• Otsailaren 23an Saharako Maratoia egin zuen eta 50 urtetik goitiko kategorian hirugarren gelditu zen. Sailkapen nagusian, berriz, 30. izan zen.

• Mendiko eta ibilbide luzeko lasterketak ditu gustuko Unsionek eta hurrengo hitzordua Zegama-Aizkorriko maratoian izanen du, 42 kilometroko luzera eta 5.400 metroko desnibela duen maratoian, hain zuzen. Luzeagoren bat egitea ere gustatuko litzaiokeela aitortu digu.

ttipi-ttapa

Kirola egiten aspaldi hasi zen Txus Unsion Berako korrikalaria. Baina azken urteotan lasterka ibilitzea pasio bihurtu da beretzat. 53 urte ditu eta kirola egiteko ohitura ttikitatik datorkion arren, orain zenbait urte hasi zen *«serio»* lasterka. *«Duela zazpi bat urte modan jarri ziren mendiko lasterketak eta orduan hasi nintzen serioago»*. Halaxe aitortu digu.

Mendia eta ibilbide luzeko lasterketak ditu gogoko beratarrak. Ez du zalantzarik. Erran digunez, horrelakoetan moldatzen da hobekien: *«lasterketa motzetan abiadura behar da eta nik ez dut. Erresistentzia da nirea eta ibilbide luzeagoak nahiago ditut»*. 42 kilometro inguru izaten dituzten maratoiak, adibidez. Egin duen azkena Saharakoa izan da. Duela urte batzuk *Gara* egunkarian izan omen zuen Saharako maratoiaren berri, eta geroztik harat joateko txirrinta izan omen du. Orain arte ez du modurik izan, baina aurten bai. Krisiaren eraginez, lana jautsi delako.

«Esperientzia polita, baina gogorra» izan dela aitortu digu Unsionek. Polita, berriz joateko gogoarekin itzuli delako, eta gogorra, hango klima eta bizi baldintzengatik. Neguak hotzak eta udak beroak dira, eta neurri batean beratarrak hango klimaren bi aldeak ezagutu ditu. *«Maratoiaren aitzineko egunetan eguraldi txarra izan genuen, eta gainera sirokoa. Maratoiaren egunean, ordea, zortea eduki genuen. Baina bukaera aldaera eguzkiak gogotik berotu zuen eta haizea kontra izan genuen»*.

El Aaiyin herrian hasi eta Smarako errefuxiatuen kanpamentura bitarteko 42 kilometro eta 195 metroak egiteko hiru ordu, 56 minutu eta 58 segundo behar izan zituen Unsionek. Eta sailkapen orokorrean 30. gelditu zen, 50 urtetik goitikoetan, berriz, hirugarren. Ez da emaitza txarra, ez horixe. Are gehiago, maratoian 118 lagun atera zirela kontuan hartuz. Gainera, oinean mina zuela egin zuen ibilbidearen erdia. *«Halere ez nintzen gelditu»*. Hori ere nabarmentzekoa. Orain arte atera den lasterketa guztiak bukatu ditu *«lesioak izan ditudanean ere, beti bukaera arte segitu izan dut»*.

«Mendiko lasterketa luzeak gustatzen zaizkit. Motzetan abiadura behar da eta nik ez dut. Erresistentzia da nirea eta ibilbide luzeagoak nahiago ditut»

Saharakoa izan da aurten egin duen lehenbiziko maratoia, baina 2008ko hondarrean ere bertze batean atera zen, Donostiakoan. Aipatzekoa da, joan den urtean Euskal Herriko Kopan hirugarrena izan zela beteranoetan. Adinean goiti baina sasoia ere bide beretik. Osasun arazoak tarteko, bi urte eta erdiz kirola egin ezinik egon zen, baina sendatu eta orain bi urte kirola egitera bueltatuz geroztik hobeki aurkitzen du bere burua. Etorkizunera begira segitzeko asmoa du. Eta noiz arte iraun dezake gorputzak halako martxa? *«Ahal dudan bitartean»*, erantzun digu. Hurrengo maratoia Zegama-Aizkorrikoa izanen du. Baina baditu bertze lasterketak ere buruan: Berako Maratoi Erdia, Sarakoa... Eta luzeagoren bat egitea ere pasatu omen zaio burutik: *«100 kilometro baino gehiago dituenen bat...»*.

TXIRRINDULARITZA

Omenaldi hunkigarria jaso du Bruk txirrindularitzari emandakoa gogoan

Herritar eta lagun aunitzek parte hartu dute ekitaldietan

ttipi-ttapa

Ttiki-ttikitatik bizikletaren gainean, eta tartean zazpi urte profesionaletan. Lasterketa eta garaipen aunitzekin, horrela osatu du Jon Bru beratarrak txirrindulari bezala bere ibilbidea. Egoerak hala behartuta utzi egin du txirrindularitza, baina orain artekoa gogoan, herritarrek eta lagunek omenaldi hunkigarria eskaini zioten otsailaren hondarreko asteburuan.

Aurreskua, oroigarriak, Bruri buruzko erakusketa eta ikus-entzunezkoa... Eta tartean emozioz beteriko negar malkoak ere bai. Ortziralarekin hasi zen omenaldia, Luis Mir Gure Txokoa Dantza Taldeko kideak Jon Bru eta honen gurasoen aitzinean Aurreskua dantzatu zuenean. Txapela eman zion ondotik. Rafa Etxeberria Berako Udaleko kirol zinegotziak oroigarria eman zion gero, eta Kultur Etxean segitu zuen omenaldiak. Argazkiak, prentsatik bildutakoak, txirrindulariaren palmaresa eta maillotak... Jende andana hurbildu zen ikustera.

Biharamunean, 80 lagun bildu zituen martxa zikloturista egin zen, hainbat aurpegi ezagunekin. Ondotik, 150 lagun bildu ziren Zalain jatetxean egindako bazkarian.

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA ETA JON ALTZUGUREN

Bruren omenaldiko momentuak ageri dira argazkian: jasotako txapelarekin eta oroigarriarekin, gurasoen ondoan, erakusketan eta martxa zikloturistan.

FLASH

Sara Korrika Trail hilaren 29an

Sara Korrika Elkarteak antolatuta, martxoaren 29an eginen da Sara Korrika Trail lasterketa. 25 kilometroko ibilbidea du eta bertzeak bertze, Larundik pasatzen da. 9:00etan hasiko da lasterketa Sarako plazatik. Xehetasun gehiago 46. orrialdean

Laxoa Txapelketa hastear

Asteazken honetan, martxoak 18, Laxoa Txapelketa hasteko bilera egitekoa zen Iruritako Gure Kaiola Elkartean. Baztan-Errekako Laxoa Txapelketaren 30. edizioa izanen da aurtengoa eta finala Arraiozko plazan jokatuko da abuztuaren 2an, ezusterik izan ezean. Txapelketaren formatoa azkeneko urteetan erabilitakoa izanen da, hau da, talde guztiak bi multzotan banatu ondotik, bi itzulitako ligaxka jokatuko da multzo bakoitzan. Ondotik, kanporaketak jokatuko dira: final laurdenak, finalaurrekoak eta azkenik, final haundia.

Bidasoa Ibaiaren jautsiera

Hondarribiko Izurde Elkarteak antolatzen duen Bidasoa Ibaiaren Nazioarteko jautsierak 40. edizioa beteko du aurten eta maiatzaren 1ean eginen da. Ohikoa denez, Endarlatsako zubian izanen dute abiapuntua igerilariek, 9:30ean. Oraindik denbora gelditzen da, baina Hondarribiko Aterpean ostatu hartu nahi dutenek martxoaren 29a baino lehen eman beharko dute izena. Edozein zalantza edo izen emateko, Izurde Elkartera jo (636 349462ra deitu edo *club-izurde@terra.es* helbidera idatzi).

HARRI JASOTZEA

Etxauriko Harria Txapelketa jokatuko dute Urrutia, Bertiz eta Irigoienek hilaren 29an

Leitzarrak, sunbildarrak eta errezildarrak 136,5 kiloko harri baldarra jaso beharko dute

ttipi-ttapa

Etxauriko harri baldar ezagunarekin, Alberto Lakostaren oroimenez antolatzen den txapelketa jokatuko da martxoaren 29an, igandearekin, Etxaurin (Nafarroa). Eguerdian 12:30ean hasiko da jaialdia, eta Josetxo Urrutia leitzarrak, Unai Bertiz sunbildarrak eta Aimar Irigoien errezildarrak hartuko dute parte. Harri baldar horrek 136,5 kilo pisatzen ditu.

VI. EDIZIOA

Etxauriko Harria Txapelketaren seigarren edizioa izanen da aurtengoa. Harriaren forma da txapelketa ezagun egin duena. Izan ere, forma irregularra du eta horrek zaila egiten du jasotzea. Bere garaian apostuak egiteko erabiltzen omen zen.

ARTXIBOKO ARGAZKIA

Argazkian ageri dena ez da Etxauriko harria, 109 kiloko Erreka harri irregularra, baina Etxaurikoaren gisa, baldarra da eta jasotzeko zaila.

Orain arte harri honekin egin diren saiakeretan, batzuk eskualdeko kirolariek egindakoak izan dira. 2000. urtean antolatu zen lehen aldiz Alberto Lakostaren omenaldia, eta orduan, Patxi Larretxeak jaso zuen. Josetxo Urrutia leitzarra ere behin baino gehiagotan saiatu izan da. Bere bi ahalegin hutsean gelditu ziren, baina azkenean, hirugarrenean lortu zuen jasotzea, 2005ekotxapelketan izan zen hori. Bortz minututan sei aldiz jasotzea lortu zuen Urrutiak. Geroztik, bederatzi altxaldi ere eginak ditu leitzarrak. Marka Joseba Ostolazak jarria dauka, 13 jasoaldirekin.

HERRI KIROL JOLASAK

Nafarroako Herri Kirol Jolasetako laugarren jardunaldia jokatuko da igandean Berroetan

Eguraldi txarra egiten badu, Iruritan jokatuko da

ttipi-ttapa

Aitzinera doaz Nafarroako Herri Kirol Federazioak Nafarroako Kirol Institutuarekin batera antolatutako Herri Kirol Jolasak. Ohi bezala, hiru kategorietako neska-mutikoak ari dira lehian: kimu edo alebinak (11-12 urte), haur edo infantiak (13-14 urte) eta kadeteak (15-16 urte).

Haur eta kadete mailetan bi txapelketa egiten dira: sokatira eta proba konbinatua. Alebin mailakoak, berriz, proba konbinatuetan bakarrik aritzen dira.

Aurtengoan, alebin mailan 9 talde ari dira: Berriozar A eta B, Ultzama, **Baztango Basaburua, Igantzi, Arantza,** Etxarri Aranazko Andra Mari eta Trumoiak eta Altsasuko Iñigo Aritza.

ARTXIBOKO ARGAZKIA

Igantziko taldea arpanean joan den urtean Arantzan jokatutako jardunaldian.

Haurren proba konbinatuan lau talde ari dira: Berriozar, Ultzama, **Basaburua** eta Andra Mari. Sokatiran, berriz, hiru dira, Ultzama ez baita ari.

Kadete mailako proba konbinatuan **Basaburua**, Etxarri Aranazko Andra Mari eta Putterri eta Txantrea dabiltza eta sokatiran, talde horiez gain, Altsasuko Iñigo Aritza.

Etxarri Aranatzen, Larraintzarren eta Altsasun jokatutako jardunaldien ondotik, igande honetan, hilak 22, Berroetan jokatuko da laugarrena (euria egiten badu, Iruritan). Finala Berriozarren jokatuko da apirilaren 5ean.

PILOTA

ARGAZKIA: ONDIKOL

Malerrekako zazpigarren Eskuz Binakako Txapelketako finalak jokatu zituzten pilotariak, sari banaketaren ondotik.

Malerrekako zazpigarren Eskuz Binakako Txapelketako finalak jokatu dira

Martxoaren 7an jokatu ziren Doneztebeko Udal pilotalekuan

ttipi-ttapa

Erreka Elkarteak zazpigarren urtez antolatutako Eskuz Binakako Pilota Txapelketak eman du aurtengoa. Finalak martxoaren 7an jokatu ziren Doneztebeko Udal pilotalekuan.

Goizean, ttikienak aritu ziren: **benjaminetan**, Umore Onako Anton Apezetxea eta Errekako Iker Salaberria goizuetarrek 18 eta 12 irabazi zieten Azpeitiko Ilunpeko Alberdi eta Balerdiri.

Alebin mailan, Atarrabiako Beti Onak taldeko Ayesa eta Iruritak 18 eta 12 irabazi zieten Burlatako Zugarraldeko Pedroarena eta Eskirozi.

Infantiletan, Leitzako Aurrerako Iparragirre eta Olanok 18 eta 5 irabazi zieten Zugaraldeko Larrunbe eta Alduntzini.

Arratsaldean jokatu ziren falta ziren finalak.

Kadeteetan, Etxarri Aranazko Gure Pilota taldeko Ijurra eta Lasa, Andoaingo Ariztimuño eta Ulangaren kontra aritzekoak ziren, baina azkenean, etxarriarren ordez, Mundarroko Sanchez eta Errekako Zestau aritu ziren. Hauek galdu egin zuten. Ariztimuño eta Ulangak 18, Sanchez eta Zestauk 13.

Jubeniletan, Hondarribiako Manterola eta Zazpi Iturriko Arzelusek 18 eta 14 irabazi zieten Hernaniko Arrieta eta Azpitarteri.

Bigarren mailako senior kategorian, Tolosako Aurrera Saiaz taldeko Oier Apezetxea goizuetarrak eta Zubirik 22 eta 11 irabazi zieten Errekako Imanol Baleztena zubietarrari eta Uharteko Kortabarriari. **Senior elite kategorian**, azkenik, ez zen kolorerik izan. Hernaniko Esnal profesional ohiak eta Gorrotxategik 22 eta 5 irabazi zieten azken hiru urteetako finaletan izan den Renobalesieta Koldo Galarragari. Hernaniarrek 800 euroko saria jaso zuten eta Aurrera Saiazekoek 700 eurokoa.

ERREKAKO BIGARREN MAILAKO FINALAK

Txapelketa nagusiaz gain, Errekak bere pilotariendako ere banakako eta binakako txapelketak antolatzen ditu eta finalak martxoaren 6an eta 7an jokatu ziren

Benjamin 2B kategoriako final estuan, Saldiasko Ibai Erasunek 18 eta 17 irabazi zion Sunbillako Gorka Antuñari.

Benjamin 2A kategorian, Doneztebeko Mikel Lana 18 eta 11 gailendu zitzaion Donamariako Beñat Lazkanori.

Alebin 2B kategorian, Goizuetako Iker Salaberriak 18 eta 3 irabazi zion Donamariako Asier Baztarrikari.

Alebin 2A kategorian, Sunbillako Julen Juankorenak 18 eta 7 irabazi zion Lesakako Joel Oronozi.

Infantiletan, Legasako Jon Mikelarenak 11n utzi zuen Urrozko Javier Saldias eta **kadeteetan**, partida bikain eta gogorrean, Lesakako Mikel Maiak 18 eta 17 irabazi zion Doneztebeko Irail Zestauri.

Binakako txapelketari dagokionez, **benjamin 2B kategorian**, Aurtizko Hodei Aioroa eta Saldiasko Ibai Erasunek 18 eta 15 irabazi zieten, Sunbillako Gorka eta Asier Antuñari.

Benjamin 2A kategorian, Donamariako Beñat Migeltorena eta Beñat Lazkano 18 eta 12 gailendu zitzaizkien Gazteluko Eneko Lorente eta Doneztebeko Mikel Lanari.

Alebin 2B kategorian, Doneztebeko Julen Larretxea eta Urrozko Julen Saldiasek 18 eta 16 irabazi zieten Elgorriagako Aritz Arrieta eta Donamariako Asier Bazterrikari.

Alebin 2A kategorian, Doneztebeko Dani Moran eta Sunbillako Julen Juankorenak 15ean utzi zituzten Donamariako Nando Inda eta Lesakako Joel Oronoz.

Infantiletan, Doneztebeko Dani Moran eta Legasako Jon Mikelarenak 18 eta 13 irabazi zieten Urrozko Ibai Iribarren eta Javier Saldiasi.

Kadeteetan, Urrozko Ibai Juanena eta Lesakako Xabier Karrion izan ziren txapeldun, 13an utzi zituzten Lesakako Mikel Maia eta Iturengo Julen Altxuri.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

IKASTAROAK

DONEZTEBE

Martxoaren 24an eta 31n eta apirilaren 7an erretzeari uzteko hitzaldiak. 12:30etik 14:30era Liburutegian.

POESIA

ELIZONDO

Martxoaren 20an, poesia errezitaldia Anasaps erakundeak antolatuta. 17:00etan Arizkunenean.

LEHIAKETAK

BAZTAN

Apirilaren 16ra arte, Baztandarren Biltzarra iragarriko duen kartel lehiaketa. Xehetasunak 43. orrialdean.

KULTUR EGUNAK

BERROETA

Martxoaren 20tik 22ra Asteburu Kulturala, Gure Ametsa Elkarteak antolatuta. Xehetasunak 44. orrialdean.

SUNBILLA

Martxoaren 27tik 29ra Asteburu Kulturala. Xehetasunak 26. orrialdean.

IKUSKIZUNAK

BERA

Martxoaren 28an, Escena Dantza Jaialdia. Hip hop dantza multimedia *Papiro... Flexia.* 20:00etan Kultur Etxean.

KORRIKA

ESKUALDEAN

Martxoaren 28an eta 30ean, Korrika 16 pasako da eskualdetik. 28an Leitzaldetik eta 30ean inguruko gainerako herrietatik.

GOMENDIOAK

Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala larunbatean

ZORTZI BERTSOLARI TXAPELAREN BILA

Zortzi bertsolari –horietatik zazpi **Ttipi-Ttapa**k hartzen duen eskualdekoak– nor baino nor ariko dira larunbat honetan, martxoak 21, Nafarroako bertsolari onenaren txapelaren bila. Elizondoko Lur dantzalekuan jokatuko da saioa, 17:00etan hasita. Xabier Silveira, Julio Soto, Iñigo Olaetxea, Erika Lagoma, Xabier Legarreta, Julen Zelaieta, Jon Barberena eta Ander Fuentes *Itturri* ariko dira bertsotan. Ia denak lehendik txapelketan parte hartutakoak dira, Ander Fuentes izan ezik. Honek bere lehenbiziko finala izanen du. Eta finalean lehiatuko direnen artean, Xabier Silveira eta Julen Zelaieta dira lehenagotik txapeldun izandako bakarrak. Xehetasun gehiago, aldizkariko 48. orrialdean aurkituko dituzue.

HAUR KANTARI JAIALDIA MARTXOAREN 28AN

Larunbat honetan zortzi, martxoak 28, toki berean, Nafarroako Haur Kantari Jaialdiko saioa jokatuko da, 18:00etatik aitzinera. Bera, Baztan, Doneztebe, Goizueta eta Leitzako ikastetxeetako neska-mutikoek parte hartuko dute, denak ere eskualdekoak. Xehetasun gehiago, aldizkariko 25. orrialdean irakurgai.

DISKAK

Non zuztarra, han adarra

LAJA ETA MIKEL

ELKAR, 2009

Iñaki Garmendia Laja trikitilari ezaguna berriro ere estudioan sartu da bertze disko bat grabatzeko. Landakanda eskenatokitik erretiratu zenetik alboan izan duen Mikel Alustiza panderojole eta kantariaren laguntzaz. Zumarragako Jose Oria trikitilari historikoaren senitartekoa da azken hau. Laja eta Mikel bikotearen bigarren diskoa herrikoia, freskoa eta alaia da, baina batez ere kalitateko musika ekarri dute, nola ez, trikitixaren maisuaren eskutik. *Non zuztarra, han adarra* izenburupean 14 kantuz osatutako diskoa otsail amaieran argitaratu zuten. Kolaboratzaile ezagunen laguntza jaso dute lan berrian eta horien artean Fernan eta Mikel Irazoki beratarrak eta Ramon Zubizarreta Landakanda aipa daitezke.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(otsailaren 27tik martxoaren 6ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 49,00 € (=)

Zerri gizena
1,085€ kiloa. (+0,045)

Zerramak:
0,460€ Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,16 (-0,06)
1.koa 3,86 (-0,06)
2.koa 3,16 (-0,06)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,26 (-0,06)
1.koa 3,96 (-0,06)
2.koa 3,28 (-0,06)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 192,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,10/3,20
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,10/5,90
8-10 kilokoak: 4,10/4,40

JAKIN BEHARREKOAK

Gas galdara urtero ikuskatu behar dela gogoratu du Iratxek

2008ko martxoaz geroztik legeak hala behartzen du

Azken aldian gas instalazioarekin zerikusia duten hainbat ezbehar gertatu dira. Hori saiheste aldera, galdara urtero ikuskatu behar dela ohartarazi du Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteak.

2008ko martxoan 1027/2007 Errege Dekretua onartu zenetik, derrigorrezkoa da gas galdararen egoera urtero aztertzea eta behar diren ziurtagiriak edukitzea. Erabiltzaileari dagokio zerbitzu hau kontratatu eta ordaintzea.

Zenbait gas enpresek urtero ikuskatzeko zerbitzua eskaintzen dute. Baina komeni da jakitea galdara jarri duen enpresa eta azterketa egiten dutenak ez dutela zertan berdinak izan, beti ere, horretarako baimena baldin badu.

Urteroko azterketaz gain, badira etxean aintzat hartu beharreko segurtasun neurriak.

SEGURTASUN NEURRIAK

Legeak exijitzen duen urteroko kontrol horrez gain, erabilgarriak izan daitezkeen hainbat segurtasun neurri daude:

-Gelak nahikoa aireztapen eduki behar du. Kanpora ematen duen sareta edo *rejilla*ren bidez izan daiteke, bat lurzorutik hurbil eta bertzea sabaitik hurbil. Beti garbi mantentzea komeni da, hautsik gabe eta zabalik.

-Berogailuek eta galdarak kea ateratzeko irteera ona eduki behar dute. Irteerako hodiak nahiko haizebide izatea ezinbertzekoa da.

- Gas-bonbonara doazen tutuak zaindu egin behar dira, eta iraungitze-epeari arretaz begiratu behar zaio.

-Sugarraren koloreari erreparatzea garrantzitsua da. Urdina eta zuzena izan behar du. Horixka eta aunitz mugitzen den sugarra seinale txarra da.

-Giltzak konprobatu behar da, hau da, erabili behar ez direnean, pasoko giltzak itxita dauden.

-Ke-kanpaia eta berogailuaren galdara, biak aldi berean ez erabili. Galdara sukaldean badago, kekanpaiarekin galdararen keak geldi daitezke, kanpora atera beharrean.

-Gas usaina somatuz gero, ez piztu argiak eta ez jo tinbrerik. Leihoak zabaldu eta gela airreztatu. Usaina ongi itxita ez dagoen aparatu batetik ote dagoen konprobatu eta arazoa hor ez badago, teknikari bati deitu, instalazioa lehenbailehen ikuska dezan.

LIBURUAK

Larrua hotz

Albert SANCHEZ PIÑOL

TXALAPARTA, 2009

Independentzia eskuratu berri duen Irlandako errepublika gaztea inarrosi duen guda zibiletik ihesi, irlandar matxino ohia den liburuko protagonistak itsasbideetatik aparte dagoen irla galdu batera joko du, bertako egurats-ofizial izateko asmoz. Hango lur-eremuan, itsasargia, etxola bat, aitzineko egurats-ofiziala beharko lukeen gizona eta bere oroitzapenak izanen ditu lagunarte bakar… Edo hala uste du. Stevenson, Lovecraft edota Conrad-en obrekin parekatua izan den eleberri honen dohainik haundiena, beharbada, nahi gabe ere pentsarazteko duen ahalmena da. Estilo single baten pean, irudi eta ideia indartsuen literatura da Albert Sanchez Piñol kataluniarraren *Larrua hotz* argitalpena. Narrazioaren harian katigatuta, irakurleak ezin izanen dio hain urruti eta, aldi berean, hain hurbil dagoen egiari, beldurrari, ihes egin.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

MENDI ATERALDIAK

ZUGARRAMURDI

Martxoaren 29an Zugarramurdiko itzulia, Atxuria Mendi Taldearen eskutik.

BAZTAN

Martxoaren 22an bortz milak aukeratu du Baztango Mendigoizaleak taldeak.
Martxoaren 29an Alkurruntzera mendi ateraldia antolatu du Baztango Mendigoizaleak elkarteak.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Martxoaren 21ean Jalisko Band eta Jaione Olazabalekin dantzaldia, 00:30ean Lur dantzalekuan.

IGANTZI

Martxoaren 21ean Beteluko Abesbatzaren kontzertua, 20:00etan Elizan.
Martxoaren 28an Berako Abesbatzaren kontzertua, 20:00etan Elizan.

SENPERE

Martxoaren 21ean Pantxoa eta Peioren kontzertua, 17:00etan Elizan.

BERTSOLARITZA

ELIZONDO

Martxoaren 21ean Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala, 17:00etan Lur dantzalekuan. Xehetasunak 48. orrialdean.

KANTARI JAIALDIAK

ELIZONDO

Martxoaren 28an Nafarroako Haur Kantari Jaialdiko saioa Lur aretoan, 18:00etan. Xehetasunak 25. orrialdean.

MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar dira.
Argazkia jarri nahi izanez gero, 10 €.
Ttipi-ttapa telebistan eta *www.ttipi.net*en ere agertuko da
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

LANA
301. Eskariak
302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA
401. Eskaintzak
402. Akademiak

MOTORRA
501. Salerosketak
502. Tailerrak

ANIMALIAK
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

DENETARIK
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

HARREMANAK
801. Agurrak

ANZABAL
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.
- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurrarekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BERA. Duplexa salgai Bidasoa karrikan. Eraberritua. Interesatuak bakarrik. ☎661 577137.

DONEZTEBE. Bi logelako pisua salgai. Prezio interesgarria. ☎607 978656.

BERA. Kanttonberri 6, 1 eskuina pisua salgai. 80m²koa eta 30m²ko terraza. 3 logela, sukalde haundia, egongela eta bainugela. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Berogailua. ☎948 630633/618 491921.

IRUÑA. Txantrean pisua salgai, 4. solairuan, igogailurik gabe. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Berritua eta mobleztatuta. ☎667 363593.

DONEZTEBE. 90m²ko pisua salgai, toki lasaian. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Aparkatzeko toki onean eta egoera onean. ☎615 561458.

DONEZTEBE. 80m²ko pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bi balkoi hiru aldetara (aitzinera, gibelera eta aldeetara). Argitsua, bista onak eta aparkaleku paregabea. Ongi kokatua eta prezio onean. Deitu konpromisorik gabe. ☎615 561458.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

DONEZTEBE. Pisua errentan emateko. ☎678 633562.

BERA. Agerra auzoan pisua errentan emateko. 3 logela, berogailua eta igogailua. ☎619 814225/659 963960.

BERA. Pisua errentan emateko. Sukalde-jantokia, egongela, bi bainugela osatu eta hiru logela. Berogailua. Mobleztatua. ☎690 180230.

ELIZONDO. Erlategi plazan 3 logelako pisua errentan emateko. ☎650 283322.

DANTXARINEAtik 5 minutura 15m²ko borda errentan emateko, 30m²ko terrazarekin. 220 euro hilean. Ura eta elektrizitatea barne. Irailaren 1etik ekainaren 30era erabiltzeko. ☎(0033) 633871005.

LESAKA, **ELIZONDO** eta **DONEZTEBE**. Pisuak errentan emateko. ☎607 978656.

BERA. Pisua errentan emateko, 3 logel, egongela eta bainugela. Mobleztatua. ☎948 630552.

LESAKA. Pisua errentan emateko, 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Erdi mobleztatua. ☎948 630552.

SUNBILLA. Baserri moldatua salgai, lur eremuarekin. ☎948 630552.

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

LESAKA. 53 m²ko lokal komertziala salgai edo errentan emateko. Antoiu 29, beheko solairua. ☎679 432522.

LESAKA. 20m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

DONEZTEBE. Bajera bere lur eremuarekin salgai. Vasconia bankuaren ondoan. Merke. Ikusi eta prezioaz solastuko dugu. ☎607 978656.

LURRAK/ORUBEAK

112 Saldu

DONEZTEBE. Bi lur eremu urbanizatu salgai. Prezio ona. ☎607 978656.

ZERBITZUAK

205 Zurginak

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak

BURLATA-IRUÑA. Tayri higiene-naturista zentroa: ikastaroak asteburuetan=20 euro=·nola araztu organismoa halako kasuetan: botikak hartuta, gehiegizko elikadura, alkohola, tabakoa, drogak, alergiak... ·nola prebenitu: katarro errepikako-

ZUBIETAKO UDALA

HERRIKO OSTATUAREN ERRENTAMENDUA

Zubietako Udalak, 2009ko urtarrilaren 30ean egin osoko bilkuran, lehiaketa irekirako deia egin zuen "Herriko Ostatua" deitutako lokalean tarberna, hostal eta jatetxe zerbitzuaren errentamendua adjudikatzeko, baldintza hauei jarraikiz:

Errentamenduaren iraupena: 5 urte; beste 5 luza daiteke.

Hilabeteko alokairua: 450 euro gehi % 16 (BEZa). Hau izanen da hasierako prezioa.

Eskaintzak aurkezteko epea: eskaintzak Zubietako Udalaren idazkaritzan aurkeztuko dira, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu ondoko hamabost egun naturaletan, onetsi den administrazio klausulen pleguan adierazitako moduan.

Behin-behineko fidantza: 1.500 euro.

Proposamenak irekitzea: Udalaren osoko bilkuran, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoan.

Klausula administratibo partikularren plegua interesatuen eskura dago, Udaleko idazkaritzan.

Zubietan, bi mila eta bederatziko martxoaren bederatzia.

Alkatea,
Francisco Michelena Celayeta
udala@zubieta.es

rrak, otitisa, anginak, infekzioak, operazio-ondokoa/aurrekoa edo egonaldia ospitalean. Kiromasajista: osteoartikularra eta zirkulatorioa=9 egunetan=150 euro. ☎948 186907/ 647 156370.

Fistula arazoak? Kirurgiarik gabe. Naturala. 15 egunetan moldatua. ☎618 628311.

NARBARTE. Klase partikularrak ematen dira, 18 urte bitartean. Batxilergoko irakaslea. ☎608 466231.

Pladur instalatzaileak lan eginen luke. Erremintak, furgoneta eta autonomoa. ☎609 477277.

LANA
301 Eskariak

Erizain laguntzailea. Gaixoak, ezinduak... zaintzen dira, egunez nahiz gauez. Esperientziaduna. ☎679 212092.

LANA
302 Eskaintzak

Emakume euskalduna behar da astelehenetik ortziralera goizetan ordu batzuez **etxea garbitzeko**. ☎629 553829.

Jatetxe batean **fregaderan** lan egiteko eta **zerbitzari** lanetan aritzeko bi langile behar dira. Jai eta opor egunetan lan egiteko. Eguerdiko zerbitzua (12:00-17:00). ☎948 599222.

MOTORRA
501 Salerosketa

Motorra salgai: KTM 640 trail. ☎678 959534.

Iveco Stralis 480 **kamioia** salgai. 5 urte. Garraio txartelarekin eta lan egiteko aukerarekin. ☎948 630946/ 619 317168.

Golf V GTI autoa salgai. 2006ko abuztuan matrikulatua. 35.000 km. Oso egoera onean. Prezioa: 23.000 euro. ☎615 747054.

Opel Vectra DTI autoa salgai. Diesela eta egoera onean. ☎678 606407.

Gas-gas 321 TXT motorra salgai. 2000koa. Partikularra eta matrikulatua. 1.500 euro. ☎678 606407.

Kamioi trailerra salgai, lanerako aukerarekin. ☎615 561458.

ANIMALIAK
601 Emateko

Pirinioetako mastina oparitzeko. 3 koloretakoa eta 3 urtekoa. Etxean egotera ohitua dago. ☎609 290513.

Euskal artzain zakur emea oparitzeko. 8 hilabetekoa. ☎609 290513.

ANIMALIAK
602 Salerosketak

Mendiko **garainoa** erosi edo trukatuko nuke. Beltza bada hobe. Nirea mendian ongi egoten dakiena da, pottoken tamainakoa. ☎637 873969.

Bi asto eme salgai. 11 eta 3 urtekoak. Aukera ona. ☎699 928540 (Aritz).

DENETARIK
702 Salerosketak

Agria 9900 E **traktorea** eta bere **karroa** salgai. **Belarrari buelta ematekoa** salgai (4 metro zabal). Egoera onean. ☎948 450060.

Aulki gurpilduna eta bainerarako **aulki egokitua** salgai. Biak berri-berriak. ☎686 199873.

Belarra mailatzekoa salgai. Prezioa: 600 euro. ☎678 959534.

Lehen ebakialdiarekin egindako **150 belar-fardo** salgai. ☎699 432036.

Gantxiloz egindako koltxak salgai, 1,35 eta 1,5 metrokoak. ☎662 143066.

Poliuretano P.U. **depositua** salgai. Ultramore tratamendua pasatua. 10.000 litroko edukiera, elikagaikontsumorako. Berria eta merke. ☎648 184068.

urtebetetzeak

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin. www.ttipi.net

Gazteluko **Mikel Telletxea Sarrateak** 2 urte beteko ditu martxoaren 26an. Zorionak eta musu haundi bat Joseba eta familia guztiaren partetik.

Zubietako **Julen Santestebanek** martxoaren 12an 7 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu pila familiaren eta berexiki Karmele eta Endikaren partetik. Aupa joaldun!

Uxuek 8 urte bete ditu martxoaren 15ean. Zorionak familia guztiaren partetik.

Iñigo Goikoetxea Macaya ultzamarrak 18 urte beteko du martxoaren 18an. Aunitz urtez, aita, ama eta Alkozko familia osoaren partetik.

Iñigo Goikoetxea Macaya ultzamarrak urtea beteko du martxoaren 18an. Zorionak eta muxu haundi bat Berako atatxi eta amatxiren partetik.

Aritz Aranberri Goiak 3 urte bete ditu martxoaren 17an. Muxu haundi haundi bat gure muttiko politarentzat.

Aritz Aranberri Goiak 3 urte bete ditu martxoaren 17an. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoen partetik.

Zorionak Erratzuko **Aimar Rekarte Iturririari** otsailaren 26an urtea bete duelako. Muxuak familia guztiaren partetik, batez ere, arreba Uxueren partetik.

Eneritz Salaberria Narbarte aranoarrak 4 urte beteko ditu martxoaren 22an. Zorionak eta muxuak etxekoen partetik. Eneritzen zorionak/laster heldu dia/martxon hoetabia/gure poxpolina da/lau urteren jabia/Goizuetan hasi du/bere eskolaldia/ikasten azkarra da/jostatzenhobia/neskato hau dakagu/berdinik gabia.

Leitzako **Haritz** eta **Aimar Azpirotz erbitik** martxoaren 23an eta apirilaren 4an 3 urte eta urtea beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bana atte, ama eta familia guztiaren partetik.

Zubietako **Ane Anso Loiartek** apirilaren 9an 11 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta berexiki Naiararen partetik.

Ekiñe Mindegia aurtiztarrak apirilaren 2an 11 urte beteko ditu. Zorionak potxoli eta muxu haundi bat atta, ama, Arkaitz, Miren, Ainara eta Xabiren partetik. Afare goxo-goxoa prestatu e!

Manex igantziarrak 3 urte bete ditu martxoaren 14an. Aunitz urtez eta segi horretan, xintxo, xintxo...

Andoni Mindegia aurtiztarrak 10 urte beteko ditu apirilaren 2an. Aunitz urtez Lesakako osaba-izeben partetik. Ongi pasa lagun artean.

Juxune!!! Neska polit honek 19 urte beteko ditu martxoaren 23an. Aunitz urtez Iraizozko bi «ahizpen» partetik. Besta baten esperoan gelditu-ko gara. Muxu 1!

Zubietako **Uxue Santesteban Otxandorenak** 2 urte bete ditu martxoaren 13an. Aunitz urtez denen partetik eta bina muxu Naroa, Garazi, Iker eta Ekaitzen partetik.

Amonarikan ederrenari, zorionak, aunitz urtez! Urte askoan horrela segi! Zure familian partez.

Lesakako **Esperanza Anzizari**, zorionak guapisssima! Martxoaren 20an urteak beteko dituzu! Ongi mantentzen zara, eta ea urtebetetze eguna baino lehen dentista bisitatzen duzun!

Ainara Amoros aranztarrak 25 urte beteko ditu apirilaren 1ean. Aunitz urtez eta muxu haundi haundi bat Oier eta lagunen partetik.

Zugarramurdiko **Maialen Etxabe Olhagaray**k 5 urte beteko ditu martxoaren 26an. Zorionak eta muxu haundi bat ahizparen partetik.



Uxue Santesteban Otxandorena zubietarrak urteak bete ditu martxoaren 13an. Zorionak eta muxu handi bat Esther eta bere familiaren partetik.

Berako **Garazik** urtea beteko du apirilaren 2an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.

Intza Mujika Klaber aranoarrak 3 urte beteko ditu martxoaren 19an. Zorionak atta, ama eta Anderren partetik eta muxu pila pila patata tortilla.



Zubietako **Saioa Mariezkurrenak** 5 urte beteko ditu martxoaren 22an. Egin pastela goxo-goxoa! Zorionak!

Zorionak **Xabier** eta **Saioa**ri apirilaren 9an eta martxoaren 22an urteak beteko dituztelako. Bost katxiporreta bikote!

Dolores Albizuk urteak bete ditu martxoaren 16an. Muxu haundi bat biloben partetik.



Ander Urbizu Garziarena leitzarrak urtea bete du martxoaren 11n. Zorionak eta muxu haundi bat Mariajeren partetik.

deskontuak

DENDA HAUETAN EROSTEAGATIK

EDURNE Arropa-denda • BERA
%5eko deskontua, 30€tik gora eskura ordainduz

ETXARTE Bitxi-dendak • LESAKA
%10eko deskontua bitxietan

FOTO-ERGAZKIAK
GOIKO Argazki-denda • BERA
%10eko deskontua kopia digitaletan

BERAUTO tailerra • BERA
%5eko deskontua errekanbioetan

SARIDUNAK:

1. 3 liburu (Elkar):
Lourdes Indakoetxea (Sunbilla)
2. 2 kamiseta (Oninart:
Axun Ulazia (Etxalar)
3. 2 kamiseta (Txapela Buruan):
Sara Baleztena (Donamaria)
Mª Jose Zaldua (Elbete)
4. 3 hilabeteko harpidetza (Argia):
Arantxi Diez (Zubieta)
5. Sorginak mahai-jolasa (Aisia):
Maria Elena Irigoien (Donamaria)
6. Escena dantza jaialdia (Berako Kultur Etxea):
Leire Portu (Lesaka)
Blanca Perez (Etxalar)
Arantxa Danboriena (Etxalar)
Iñaki Castillo (Bera)
Garbiñe Sarasola (Lesaka)
Mª Eugenia Sagardoi (Etxalar)
Axun Irazoki (Zugarramurdi)
Jaione Otxandorena (Sunbilla)
Nekane Unsion (Legasa)
Xabier Ballarena (Erratzu)

Mendukilo lezeetako liburua:
Ainhoa Etxebeste (Sunbilla)

Mendukilo lezeetarako 5 sarrera:
Estitxu Aginre (Bera)
Amaia Otxoteko (Lesaka)
Ainara Arburua (Etxalar)
Mikaela Olano (Leitza)
Jone Ordoki (Lesaka)

ORAIN **www.ttipi.net**
bitartez ere parte har dezakezu.
Animatu!

ESKATU ZURE TXARTELA
948 63 54 58 telefonoan

ttipi txartelarekin beti irabazten da!

10 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu
astelehenetik ostiralera
09:00-16:00 Tel: **948 63 54 58**

1 **BI LIBURU**
Lepoko berdea (Elkar)
Oz-elp Hastia (10-12 urte)
Lote 1
erein argitaletxea
www.erein.com

2 **BI SARRERA**
Lote 1
AQUARIUM DONOSTIA 943 44 00 99 www.aquariumss.com
AQUARIUM www.aquariumss.com

3 **JANTZIAK**
Soinekoa, kamisetak, jertseak... zuk aukeratu
2 Lote
txapela buruan
www.txapelaburuan.com

4 **Pirritx, Porrotx eta Mari Motos**
Eskerrik asko DVDa
Herriko postariak liburua
Piratak posterra
3 pin
Lote 1
www.katxporreta.com

5 **KAMISETA**
2 Lote
onddo la punta.
www.onddotapunta.com

6 Iñaki Diliguez akordelaria
Lote 1
Nafarroako musika Denda digitala, taldeak kontze
www.farmonmusic.com

ttipi saskia

TTIPI SASKIAren ZOZKETAN JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE
Bidali SMSa idatziz **TTIPI SASKIA** eta zure IZEN-DEITURA **5767**ra

CUBO SPA & SPORT
2 SARRERA
www.cubospasport.com

2 SARRERA
Artic Palacio de hielo
Itaroa 5
Telefonoa 948 33 88 55
Uharte Nafarroa

Zozketan parte hartzeko epea: martxoaren 11tik martxoaren 25era. Irabazleen izenak apirilaren 2ko aldizkarian argitaratuko dira. Mezuaren kostea 1.20€ (BEZ gabe). Zure datuak ttipi-ttaperen fitxategian gordeko dira aurrerantzean izanen diren eskaintzen berri emateko. Zuzenketa edo deuseztapenen bat egiteko deitu 948 63 54 58ra.

Zure argazkiak ttipi-ttaperen TTIPI TXARTELA zabal kolorezko paperetan, mesedez, 2€ zaitez harremanetan TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAREKIN 948 63 54 58 telefonoan deitu

betiko

PVC eta aluminio aroztegia

· PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOEN FABRIKAZIOA · SALMENTA ETA INSTALAZIOA

- NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK
- DISEINU ETA MODELO EZBERDINAK
- BANAKAKO SOLUZIOAK
- ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKOAK
- ENERGIA AURREZPENAK

www.betikopvc.com
betikopvc@terra.es
Ordoki industrialdea z/g · Tel.: 948 453 259 · Faxa: 948 453 423 · 31713 ARIZKUN (Nafarroa)